



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1996ko urriaren 30a

57 ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:**

- Lesakako Udalaren fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (2. or.).
- Berako Udalaren fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina (21. or.).

---

**G Saila:**  
**JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK**

---

## **Lesakako Udalaren fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko urriaren 14an eginiko bilkuran, Kontuen Ganbarak egindako Lesakako Udalaren fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea erabaki zuen.

Iruñean, 1996ko urriaren 15a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **Lesakako Udalaren fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- I. Helburua. (2. or.).
- II. Norainokoak eta mugak. (3. or.).
- III. Iritzia. (3. or.).
  - III. 1. Lesakako Udala. (3. or.).
  - III. 2. Andra Mari zaharretxea. (4. or.).
- IV. Finantza egoerak: 1995eko aurrekontuaren betetzea. (4. or.).
- V. Ondorioak eta gomendioak. (5. or.).
  - V. 1. Aurrekontuaren betetzearen iruzkin nagusiak. (5. or.).
  - V. 2. Egoera ekonomikoa 1995eko abenduaren 31n. (5. or.).
  - V. 3. Erakunde autonomoa. (6. or.).
  - V. 4. Kontratazioa. (7. or.).
  - V. 5. Bertze irazkin orokor batzuk. (9. or.).
  - V. 6. Intereseko bertze zenbait arlo. (9. or.).
- Eraskinak.** (17. or.).
  - 1. Eraskina. Finantza-pasiboen zerrenda 1995eko abenduaren 31n. (17. or.).
  - 2. Eraskina. Andra Mari zaharretxearen kitapena eta kutxa kontaketa. (18. or.).

3. Eraskina. Lesakako alkatearen alegazioak. (19. or.).

#### **I. HELBURUA.**

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/90 Foru Legearen eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/84 Foru Legearen arabera, Lesakako Udalaren kudeaketa ekonomiko eta finantzieroa eta baita 1995eko ekitaldiko gastuen eta dirusarreraren aurrekontuen betetzea ere fiskalizatzeari ekin zaio.

Aztertutako udal erakundeari ezar dakioken legeriaren barruan honako hauek biltzen dira funtsean: uztailaren 2ko 6/90 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa; apirilaren 2ko 7/1985 Legea, toki erregimenaren Oinarriak arautzekoa; 1981eko ekainaren 8ko Araua, toki ogasunak eraberritzeari buruzkoa (TOA), eta hori garatzeko Erregelamendua (TOE), 1981eko abenduaren 17koa; orobat, Nafarroako toki erakundeei eskuarki ezar dakiekeen gainerako arauteria.

Txostenaren xedea da gure iritzia ematea hurrengo gaiei buruz:

- a) 1995eko aurrekontuaren garapena eta burutzea
- b) 1995eko abenduaren 31n zegoen ondare egoera azalaraztea, eskuarki onartzen diren kontabilitate hatsapenen arabera.
- c) Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzieroa legezkotasuna hatsapenaren arabera garatzen den ala ez aztertzea.

Lesaka Nafarroako iparraldean dago. Udalak berak emaniko datuen arabera, 1995eko abenduaren 31n 2.742 biztanle eskubidedun zituen.

## II. NORAINOKOAK ETA MUGAK.

Kontuen Ganbarak, bere jarduketa programa-rekin bat, Lesakako Udalaren fiskalizazioa burutu du, 1995eko ekitaldiari dagokiona.

Udaleko kontabilitatea aurrekontuaren betetzearen jarraipena egitera mugatzen da (aurrekontu kontabilitatea). Ez da ekitaldi bakoitzaren bukarran Udalaren ondare egoera islatzen duen kontabilitate orokorrik ageri.

Dirusarrera eta gastuei buruzko kapitulu ekonomiko guztiak berrikusteari lotu zaio burutu den txostenean. Antolaketa, kontabilitate eta barne kontroleko alderdiak jorratu dira, gorabeheren arabera eta Udalari bidali zitzaion galdesortak azaleratutako arazoekin bat beharrezkotzat jotako frogak egin direlarik.

Lesakako Udalak badu elkarte autonomo bat, Andra Mari zaharretxea, adintsuak zaintzea helburu duena. Aipatu elkarteak aurrekontu kontabilitatea du eta beronen aurrekontua ez da Udalarekin batera onartzen. (Hala ere, aipatu behar da egoera hau 1996an zuzendu dela bi aurrekontuak batera onartu baitira).

Bertzalde, herrian bada musika eskola bat. Kasu honetan ez da elkarte autonomoa eta bere gastu eta dirusarrerak Udalaren kontuetan daude sarturik. Beraz, ezin izan dugu musika eskolaren kontuei buruzko azterketa berezirik egin. (V. 3 atala).

Gure lanak izan dituen mugak, funtsean, inbentarioa ukitzen duen ezarritako kontabilitate-sistema eskasak eragin ditu.

Udalaren kudeaketa hobetzeko ohar eta gomendioak biltzen dira txostenean. Era berean, eraskin gisa maileguen koadroa eta Udalaren organigrama paratu dira.

Zelaiko lana 1996ko ekainean egin zen.

Lesakako Udaleko langile guztien laguntza eskertu nahi dugu, gure lana burutzea erraztu egin baitute.

## III. IRITZIA.

Buruturiko fiskalizazioaren esparruan Lesakako Udalaren gastu eta dirusarreraren betetzearen egoera aztertu dugu, 1995eko ekitaldiari dagokiona.

Gorabeheren arabera beharrezkotzat jotako ikuskapen-arau eta prozedurak erabili ditugu gure azterketan.

Gure azterketaren ondorioz, horra hurrengo iritzia:

## III.1. LESAKAKO UDALA.

### III.1.1. Aurrekontuaren garapena eta betetzeari buruzkoan.

1995eko aurrekontuaren betetzearen egoerak Udalak, fiskalizaturiko ekitaldian eginiko eragiketen multzoa behar bezala azaltzen badu ere, badi-ra salbuespen batzuk:

- Apartamentu babestuen helburuaren inguruko zalantzek gorabeherak sor ditzakete berauen eraikuntzarako Udalak jaso zituen dirulaguntzei dagokienez. (V.4.1 atala).

- 1995eko ekitaldian izandako kredituen aldaketa guztiak behin gastua egin eta gero gauzatu dira. Horietako bost 28.350.355 pezetako kitapenarekin batera aurkeztu dira onartzeko. (V.1. atala).

- 1994ko ekitaldiaren kitapenean 1995ean zenbatu beharreko gastu, dirusarrera eta mailegua zenbatu ziren, apartamentu babestuei zegozkienak. Gastuen zenbatekoa 88.242.529 pezeta da, dirulaguntzei dagozkien dirusarrerak 19.005.339 pezeta eta interes tasa lagundua zuen maileguak 64.398.257 pezeta jotzen du.

- Bestalde, apartamentu babestuen eraikuntza eta ekipamendurako jaso eta zenbatutako dirulaguntzei dagokienez, Udalak 1994ko ekitaldian "kobratzeke" duen dirutza 6.848.738 pezeta da. Hala ere, Gizarte Ongizate Departamentuko Zuzendaritza Nagusiaren 1996ko erabakiaren arabera ordaindu gabekoa 196.048 pezeta bertze-rik ez da. (V.2. atala).

- Udalak itxitako ekitaldien erresultetan erregistratu ditu ordaintzeke dauden 13.148.174 pezeta eskatu ezin daitezkeen betebeharrengatik, eta kobratzeke dagoen eta zailtasunak dituen 11.456.328 pezetako dirutza. (V.6.13. atala).

- Bai gastuetan nola dirusarreretan aurrekontu egozpen batzuk ez dira zuzenak baina, hala ere, ez dute udal jardueraren isla orokorra aldatzen.

### III.1.2. Ondare egoeraren azalpena.

Kontabilitate-sistema eskasak eta gaurkoturiko inbentarioren ez izateak ez digute biderik ematen Udalak 1995eko abenduaren 31n zuen ondare egoeraz iritzirik emateko.

### III.1.3. Legezketasuna.

Oro har hartuta, Lesakako Udalaren jarduera ekonomiko-finantziarioa legezketasun hatsapenak errespetatuz egiten da. Dena den, kontratazio arloan arau-hausteak antzeman ditugu (V.4 atala) eta txostenaren hainbat kapitulutan zehazten

diren BEZaren arauen aplikazioan eta langileria-  
ren arloan ere arau-haustek antzeman ditugu.

### III.2. "ANDRA MARI ZAHARRETXEAK".

Zaharretxeak aurkezturiko gastu eta dirusarre-  
ren kitapenak ongi azaltzen du, oro har, 1995eko  
ekitaldia. Salbuespenak honako hauek dira:

- Gastuen kontusail batzuetan aurrekontuen  
zenbatekoa gainditu egin da.

- 1995eko ekitaldian 1.000.000 pezetako inber-  
tsio-aurrerakina eta 196.732 pezetako inbertsio  
fondoan aldeko korrituak ez dira kontabilizatu eta  
horrek kutxako kontaketan 803.268 pezetako  
aldea sorrarazi du.

Laburbilduz eta ondorio nagusi gisa esan  
dezakegu Udalak bilduriko aurrekontu informazio-  
ak ekitaldiko gastu eta dirusarrerak ongi islatzen  
baditu ere, Kontuen Ganbararen iritziz Udalak arlo

ekonomikoaren kontrola hobetzeko neurriak hartu  
behar lituzkeela. Horietako batzuk hauexek dira:  
Kontuhartzaitzak erosketa eskaera guztiak kon-  
trolatzea, kobratzeke dauden saldo guztiak egiaz-  
tatzea eta betebeharrak faktura edo ziurtagiria  
aurkeztuta kontabilizatzea. Bertzalde, Kontratuen  
Foru Legea eta kontratazioa arautzen duten ber-  
tze lege guztiak betetzeko beharra gogoratu nahi  
dugu. Azkenik, udalaren egoera ekonomikoa mai-  
legua amortizatzen hasteak eta apartamentu  
babestuendako dirulaguntzen amaierak aldarazi-  
ko dutela aipatu nahi dugu. Izan ere, aipatutako-  
ren ondorioz aurrezki gordina gutxitu egingen da.  
Hau dena kontuan hartuta, txostenak biltzen  
dituen gomendioak egin nahi ditugu.

### IV. FINANTZA EGOERAK: 1995EKO AU- RREKONTUAREN BETETZEA.

Horra 1995eko gastu eta dirusarrera aurrekon-  
tuaren betetzearen isla:

#### GASTUEN AURREKONTUAREN KITAPENA 1995eko ekitaldia (pezetatan)

Kontzeptua	Kontua	Hasierako aurreikusp.	Aldaketak	Behin betiko aurreikusp.	Kitatutako betebeharrak	Kitutako ordainketak	Ordaintzeke	Betetzear- ren %	Onartutako guztiaren %
Itxitako ekitaldien emaitzak	0	132.685.631	0	132.685.631	132.685.631	116.754.768	15.930.863	100	34
Langileriaren gastuak	1	76.596.985	(1.533.777)	75.063.208	70.763.260	70.046.881	716.379	94	18
Ohiko ondasun eta zerb. erosketa	2	56.501.686	20.190.695	76.692.381	75.133.607	67.337.437	7.796.170	98	19
Korrituak	3	29.754.943	(5.456.950)	24.297.993	23.853.575	23.853.575	0	98	6
Ohiko transferentziak	4	15.653.000	2.421.032	18.074.032	17.305.226	14.858.193	2.447.033	96	4
Inbertsio errealak	6	65.700.000	(11.460.633)	54.239.367	53.897.546	30.062.809	23.834.737	99	14
Kapital transferentziak	7	0	8.301.684	8.301.684	8.301.684	5.662.951	2.638.733	100	2
Finantza-pasiboan aldaketak	9	17.621.000	0	17.621.000	13.485.579	13.485.579	0	77	3
Gastuak, guztira		394.513.245	12.462.051	406.975.296	395.426.108	342.062.193	53.363.915	97	100

#### DIRUSARREREN AURREKONTUAREN KITAPENA 1995eko ekitaldia (pezetatan)

Kontzeptua	Kontua	Hasierako aurreikusp.	Aldaketak	Behin betiko aurreikusp.	Onetsitako eskubideak	Kitatutako bilketa	Kobratzeke	Betetzear- ren %	Kitatutako guztiaren %
Itxitako ekitaldien emaitzak	0	149.580.911	(105.135)	149.475.776	149.474.426	117.467.868	32.006.558	100	38
Zuzeneko zergak	1	35.316.614	0	35.316.614	41.303.658	39.759.288	1.544.370	117	10
Zeharkako zergak	2	16.596.000	0	16.596.000	17.834.115	16.104.799	1.729.316	107	5
Tasak eta bertzelako dirusarrerak	3	66.505.000	0	66.505.000	81.068.494	71.554.195	9.514.299	122	20
Ohiko transferentziak	4	82.520.000	0	82.520.000	84.330.872	77.420.162	6.910.710	102	21
Ondare dirusarrerak	5	354.000	0	354.000	1.996.781	1.996.781	0	564	1
Inbertsio errealak	6	6.000.000	0	6.000.000	3.390.401	3.390.401	0	57	1
Kapital transferentziak	7	34.536.000	13.462.051	47.998.051	6.284.772	6.284.772	0	13	2
Finantza-pasiboan aldaketak	9	20.000.000	0	20.000.000	10.000.000	10.000.000	0	50	3
Dirusarrerak, guztira		411.408.525	13.356.916	424.765.441	395.683.519	343.978.266	51.705.253	93	100

## V. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK.

Ondoren ohar, ondorio eta gomendioak azalzen ditugu, Udalaren barne antolaketa eta barne kontrola sistema hobetzeko egokitzat jotzen ditugunak, hartara kudeaketa hobetzea lortu ahal izateko.

### V.1. AURREKONTUAREN BETETZEAREN INGURUKO IRUZKIN NAGUSIAK.

Iritziari buruzko III. atalean esandakoarekin bat etorriz, aurrekontu betetzearen ondoriozko alderdiok azpimarratu nahi ditugu.

1995ean indarrean izan den aurrekontua 1995eko urtarrilaren 5ko osoko bilkurak onartu zuen; behin publiko egin eta gero, kexarik sortu ez zuenez, behin betiko onartu zen.

1995ean indarrean izan den "Andra Mari" zaharretxearen aurrekontua 1995eko apirilaren 28ko osoko bilkuran onartu zen baina behin betiko onarpena ez da Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu.

Aurrekontuaren betetzea onartu gabe badago ere, 1996ko maiatzaren 30an Kontuen Batzorde Bereziak Lesakako Udalaren eta bere Elkarte Autonomoaren kontuen aldeko txostena egin zuen.

Kredituen aldaketak gastuak egin eta gero burutzen ari dira. Ekitaldian eginiko 17 aldaketetik bost kitapenarekin batera aurkeztuko dira onartzeko zenbatekoa 28.350.356 pezeta delarik.

Gastuen aurrekontuaren betetze maila %97 izan da kapitulurik garrantzitsuena itxitako ekitaldien erresultak delarik. Aipatutakoa kitatutako betebeharren %34 da 1994an obra baten zati bat kontabilizatu zelako (88.498.078 pezeta) nahiz eta obra hori 1995ekoa izan. Hurrengo kapitulu nagusiak ohiko ondasun eta zerbitzuen erosketa eta langileriaren soldatak dira, %19 eta %18ko porzentaiekin, hurrenez hurren.

Dirusarreraren aurrekontuaren guztizko betetze maila %93 izan da 1995ean, kapitulurik garrantzitsuena (%38) itxitako ekitaldien erresultak delarik. Honen arrazoia da 1994ko ekitaldian 19.005.339 pezeta dirulaguntza eta 64.398.257 pezeta mailagua kontabilizatu zirela, nahiz eta bien kontzesioak 1995ekoak izan.

Bertzalde, azpimarratzekoak dira "Ohiko transferentziak" eta "Tasak eta bertzelako dirusarrerak", %21 eta %20 porzentaiekin hurrenez hurren.

1995eko aurrekontuaren betetzeak, aurreko urteetako erresultak kenduta, 246.209.093 pezetako aitorturiko eskubideak, ditu kitatutako betebe-

harrak 262.740.477 pezeta diren bitartean. Defizita, beraz, 16.531.384 pezeta da.

1995ean aurreko urteetan onartutako 106.485 pezeta jotzen zuten eskubideak deuseztu egin dira. Itxitako ekitaldietan kitatutako betebeharririk, ordea, ez da deuseztu.

52.800.000 pezetako kreditu kontu batzuen birfinantzaketa ABILen bidez kontabilizatu da.

Amortizazio batzuk gastuen 3. kapituluaren kontabilizatu dira (korrituak) eta ez 9.ean (finantza-pasiboen aldaketa).

Aurreko lerroaldeetan esandakoarekin bat etorriz, hauxe gogoratu nahi dugu:

- *Indarrean dagoen legediak udalaren eta elkarte autonomoen aurrekontuak onartzeko finantzatzen dituen epeak bete behar dira. Horrek aurrekontua kudeaketa tresnatzat erabiltzeko aukera emanen du.*

- *Sortzapenaren printzipioa ongi aplikatzea, bai gastuetan nola dirusarreretan. Hauek guztiak egiten direnean kontabilizatu behar dira, aurreikusitako zenbatekoak alde batera utzita.*

- *Gastu eta dirusarrerak aurrekontu sail bakoitzari atxikitzea indarrean dagoen legediak dioen bezala.*

### V.2. EGOERA EKONOMIKOA 1995EKO ABENDUAREN 31N.

Bilduriko informazioa eta txosten honetan egin ditugun irazkinak kontuan hartuz, Udalak egoera finantziero hauxe du:

	Pesetak
Dirusarreraren erresultak	51.705.253
Diruzaintza saldoa	1.916.073
Gastuen erresultak	(53.363.915)
Gerakina	257.411

Bertzalde, Nafarroako Gobernuako Gizarte Ongizateko Zuzendaritza Nagusiak sinaturiko jakinarazpenaren arabera, zaharretxeko obra lanengatik kobratzeke dagoen dirutza 196.048 pezeta da. Udalak aurkezturiko kontuen arabera zenbatekoa 6.848.738 pezeta da.

Ondoren Lesakako Udalaren egoera ekonomikoaren isla diren datu batzuk aurkeztuko ditugu:

Ratioak eta magnitudeak	1994(*)	1995
Aurrekontu emaitza (1)	17.139.761	(16.531.384)
Dirusarreraren betetze maila	%86	%93

Gastuen betetze maila	%82	%97
Aurrezki gordina (2)	43.337.731	63.331.827
Aurrezki garbia (3)	5.103.528	25.992.673
Zorpetze maila (4)	%20	%16
Zorpetze muga (5)	%23	%28
Gastu publikoa biztanleko	109.933	95.821
Langileriaren indizea (6)	%23	%27
Inbertsio-indizea (7)	%46	%30
Zerga-presioa (8)	38.360	51.133
Dirulaguntzen menpekotasuna (9)	%41	%37
Inbertsioak biztanleko	43.962	19.656

(\*) 1994ko datuak ikustatu gabe daude

(1) Aurrekontu emaitzak ez ditu biltzen itxitako ekitaldietako erresultak.

(2) Ohiko dirusarrerak (Dirusarreraren 1 eta 5 arteko kapituluak). Funtzionamendu gastuak (Gastuen 1, 2 eta 4 kapituluak)

(3) Aurrezki gordina- Zama finantzieroa (Gastuen 3 eta 9 kapituluak).

(4) Zama finantzieroa / Ohiko dirusarrerak x 100

(5) Aurrezki gordina / Ohiko dirusarrerak x 100

(6) Langileriaren gastuak / Gastuak

(7) Inbertsio gastuak + Ohiko transferentzien gastuak / Gastuak

(8) Zergazko dirusarrerak (1, 2 eta 3 kapituluak) / Biztanle kopurua

(9) Transferentzien dirusarreak (4 eta 7 kapituluak) / Dirusarrerak.

Jasotako datuak konparatuta, hona hemen ondorio nagusiak:

- 1994ko aurrekontu emaitza positiboa izan zen bitartean 1995ekoa negatiboa izan da.

- Bi ekitaldietan aurrezki gordin eta garbia positiboak izan dira 1995ekoa handiagoa izan delarik. Hazkundera ohiko dirusarreraren %21ko igotzerak eragin du. Funtzionamendu gastuak %14 handitu dira.

Ohiko dirusarreraren igoera baso aprobetxamendua, lizentzia fiskala eta hirigintza lizentziak eragin dute eta baita BEZen kitapen positiboek ere.

- 1995eko zama finantzieroa 37.339.154 peze-ta izan da. Dirutza horretatik amortizazioen zenbatekoa 13.485.579 pezeta da eta korrituena 23.853.575. Kontzeptu hau ez da aldatu 1994 eta 1995ean.

- 1995ean burutu baina 1994ko ekitaldian kontabilizatutako apartamentu babestuen inbertsioak biztanleko inbertsioaren datuetan eragina izan du. Biztanleko gastu publikoaren datuetan ere gauza bera gertatu da. Kontabilizazioa ongi egin izan balitz bi indizeok handiagoak lirarteke 1995ean aurreko urtean baino.

- Zorpetze maila nabarmen jeitsi da 1995eko ekitaldian ohiko dirusarrerak handitu egin direlako.

- 74.398.257 pezetako maileguak oraindik ez dira amortizatzen hasi; bertzalde 52.800.000 pezetako zorraren birfinantzaketari ekin zaio, bi urteko gabezia epeaz. Hori dela eta heldu diren urteetako

zama finantzieroa nabarmen handituko da eta, beraz, egoera ekonomikoak txarrera egin dezake.

- 1995eko ekitaldian urte berean amortizaturiko 64.000.000 milioiko mailegua kontzertatu da.

- Presio fiskalaren hazkundera, funtsean, lizentzia fiskalak, hirigintza lizentzien kitapenak eta baso aprobetxamenduen hazkunderak eragin dute.

### V.3. ERAKUNDE AUTONOMOA.

Erakunde autonomoak, Andra Mari zaharretxea, toki entitateen aurrekontuen izaerara moldatutako aurrekontua egin badu ere, ez du plantila organikoa erantsi eta ez du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu. Aipatu entitateak 1995ean 38.500.000 pezetako aurrekontua zuen.

2. eraskinean aipatu erakunde autonomoari dagokion gastu eta dirusarreraren kitapena erantsi da eta baita kutxa kontaketa 1995eko abenduaren 31n.

Udalak ez du erakunde autonomoaren kontuei buruzko fiskalizaziorik egin. Ekitaldi amaieran berorren kontabilitatea burutu bertzerik ez du egin.

Erresidentziako langileriari nominatik kanpoko 231.659 pezetako ordainketak egin zaizkiola antzeman dugu.

Bilduriko fakturak aztertuta, eskakizun formal batzuk falta direla antzeman dugu, hala nola IFZ, data eta fakturaren zenbakia.

Tarifei dagokienez, ez dira argitaratu eta ez du horretarako ahalmena duen erakundeak onartu.

Inbertsio fondoaz finantzatutako eragiketak ez dira kontabilitatean islatu.

Kutxa kontaketa diferentzia bat izan da bi akatsengatik: alde batetik, inbertsio fondoak sorturiko korrituen zati bat ez delako kontabilizatu eta, bertzalde, obra batzuen aurrerakin moduan eginitako ordainketagatik (1.000.000 pezeta).

Aurrekoan esandakoa kontuan hartuz, hona hemen gure gomendioak:

- *Erakundearen aurrekontua Udalaren aurrekontuarekin batera bideratzea.*

- *Langileriaren plantila organikoa egitea. Lanpostu guztiak bildu beharko dituen plantila onartu eta aurrekontuarekin batera argitaratu behar da.*

- *Udal kontuhartzailtzak erakunde autonomoaren fiskalizazioa egitea.*

- *Indarrean daude tarifak ahalmena duen erakundeak onartu eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.*



- *Eginiko eragiketa guztiak kontabilizatzea kontabilitatea ekitaldiko diru mugimendu guztien isla izan dadin.*

- *Zaharretxeak erakunde autonomotzat jarraitzea komenigarria den aztertzea.*

#### V.4. KONTRATAZIOA.

Ondoren Udalak 1995ean buruturiko lau kontratazio espedienteren fiskalizazioa aurkezten dugu. Hauetariko hiru obrei dagozkie eta bertzea apartamentu babestuen ekipamenduari.

Lana	(Pezetatan)	
	Esleipena	Kontabilizatuta
Apartamentu babestuak	98.993.400	110.189.192
Alkaiagako argiteria publikoa	5.550.000	5.885.975
Irain ikastetxeko obrak	6.254.718	6.254.718
Apartamentu babestuen ekipamendua	21.454.883	18.099.818
Sukalde eta garbitokia	4.669.418	5.140.222
Altzariak	16.785.465	12.959.596
Guztira	132.253.001	140.429.703

##### V.4.1. Apartamentu babestuak.

Lesakako zaharretxearen egoera txarra zela medio, 1993an hirugarren adinari zuzenduriko 11 apartamentu babestuen eraikuntzarako proiektua egin zen. Aurrekontua 83.128.385 pezeta zen.

1994ko otsaileko osoko bilkurak administrazio baldintzen orriari oniritzia eman zion kontratazio sistematzat lehiaketa aukeratuz.

1994ko martxoan Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta bi egunkarietan iragarkia argitaratzeaz gain, zazpi enpresari eskaintzak egiteko gonbitea egin zitzaien.

1994ko apirilaren 15eko osoko bilkurak lehiaketa eman gabe uztea erabaki zuen aurkezturiko bi enpresek lizitazio prezioetik gorako eskaintzak egin zituztelako.

1994ko apirilaren 29ko osoko bilkurak aurrekontua aldatu eta zenbatekoka 99.966.443 pezetatan finkatzea erabaki zuen. Lehiaketarako baldintza ekonomiko-administratiboak ere onartu egin zituen.

1994ko maiatzean bost enpresari eskaintzak egiteko gonbitea egin zitzaien eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta bi egunkaritan argitaratu zen.

1994ko ekainaren 9ko osoko bilkuran jasotako hiru eskaintzen artean Construcciones Etxarterena aukeratzea erabaki zen, zenbatekoka 98.993.400 pezeta zelarik. Kontratua 1994ko abuztuaren 17an sinatu zen.

1995eko urriaren 5ean behin-behineko harrera akta sinatu zen.

Gaur egungo zaharretxean 32 lagun bizi badira ere, apartamentu babestuek 22 ohe bertzerik ez dituzte. Hau kontutan hartuz eta baita Bortzirietako Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak 1996ko ekainaren 4an eginiko txostena ezagutu ondoren, ekainaren 7ko osoko bilkurak honako erabaki hau hartu zuen: Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizateko Departamentuko Zuzendaritza Nagusiari esatea herriak apartamentu babesturik ez, baizik eta zaharrendako erresidentzia behar duela.

Udalak eta Gizarte Ongizate, Kirol eta Etxebizitza Departamentuak sinaturiko lankidetzaren hitzarmena eta obrari dagokion gainerako dokumentazioa aztertuta interpretazio ezberdinak izan litezke obra finantzatzeko modua eta laguntzaren izaerari dagokienez (diruz lagundutako mailegua edo dirulaguntza).

Azken interpretazioaren arabera, Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Etxebizitza Departamentuak 95.095.949 milioiko dirulaguntza eman zuen etxebizitza amankomunen zonako obrak eta apartamentu babestuak egiteko, modu honetan bereiztuta:

Diruz lagundutako mailegua	64.398.257
Fondo galduko dirulaguntza	30.697.692

Orain arte Udalak ez ditu eraikuntza horiek apartamentu bezala ekipatu. Izan ere, erran bezala, Udalaren iritziz hirugarren adinekoendako beharrak betetzeko ez da apartamenturik behar erresidentzia baizik. Beraz, dirulaguntzen gaineko zalantzak izan litezke ez baitira erabili onartutako helburua betetzeko.

Lesakako Udalak, bere aldetik, 1996ko otsailaren 27an errekurso bat jarri zuen Gizarte Ongizateko Departamentuko Zuzendaritza Nagusiaren aurrean 1996/20 erabakiaren aurka zeinen bidez etxebizitza amankomun eta bere ekipamenduetarako dirulaguntza kitatu baitzen.

Hasieran onartutako proiektuaren aldaketak lizitazio prezioa 11.195.792 pezeta gehitu zuen (%11,31). Aldaketa kaperak eta ur saneamendurako obrek eragin dute batez ere.

Bertzalde, aipaturiko obren kontratazioan honako irregulartasun hauek antzeman ditugu:

- Kreditua zegoelako agiria ez da egin.
- Esleipena eskaintzarik garestienari zergatik ematen zaion ez da azaltzen, ezta proiektuaren aldaketak ere.

- Lizitatzailleek ez dute Administrazio Baldintza Orokorren Orriak eskatzen duen kontratisten sailkapenaren agiririk aurkeztu. Guztiek Ekonomi eta Ogasun Ministeritzaren Batzorde Aholkulariari eskaturiko sailkapen agiria aurkeztu dute.

#### V.4.2. Alkaiagako argiteria publikoa.

1994ko maiatzean Alkaiagako argiteria publikoaren proiektua egin zen 6.942.450 pezetako aurrekontuaz. Administrazio baldintzen orria 1994ko ekainaren 24ko osoko bilkuran onartu zen kontratazio sistematzat kontratazio zuzena aukeratuz.

1994ko maiatzean bost enpresari eskaintzak egiteko gonbitea luzatu zitzaien eta 1994ko ekainaren 24ko osoko bilkuran obra Iñaki Olaizola Bereauri esleitzea erabaki zen 5.550.000 pezetatan.

1994ko abuztuaren 31n kontratua sinatu zen.

Espediente honetan antzeman ditugun irregulartasunen artean honako hauek aipatuko ditugu:

- Administrazio baldintzen orriak ez du zehazten zergen ordainketa eta Gizarte Segurantzaren kuotak egunean dituzten egiaztagiria eta kontratazkeko ahalmena frogatzen duena beharrezkoak direla.

- Kreditua zegoelako agiria ez da egin.

- Espedienteak ez du esleipena egiteko irizpiderik zehazten.

#### V.4.3. Irain ikastetxeko obrak.

Arkitekto teknikoak 1994ko urriaren 28an egin beharreko lanen inguruko txostena egin zuen. Aurrekontua 4.703.125 pezetatan finkatu zuen.

1995eko apirilaren 19an Nafarroako Gobernuak obra hau egiteko dirulaguntza ematen duela jakinarazten du, dirulaguntza jasotzekotan lanak irailaren 15a baino lehen amaitu behar direla azpimarratuz.

1995eko apirilaren 28ko osoko bilkuran administrazio baldintzen orria onartu zen eta kontratazio sistematzat kontratazio zuzena aukeratu zen premiatasunagatik.

Udalak 1995eko maiatzaren 8an herriko hiru enpresari eskaintzak egiteko gonbitea egin zien baina inor etzen aurkeztu.

1995eko ekainaren 22an, berriro, bost enpresari gonbitea luzatu arren, ez zen proposamenik jaso.

Enpresa batzuekin harremanetan jarri eta gero, azkenik "Construcciones Igomar, S.L." enpresak eskaintza bat egin zuen. Aurrekontua 6.254.718 pezeta zen.

Prezioaren igoeraren arrazoa eskailera-kaxako manpara da. Izan ere, arkitekto teknikoak eginitako txostenaren arabera 621.183 pezetako prezioa zuen eta "Construcciones Igomar, S.L." enpresaren aurrekontuan 1.606.538 pezeta.

1995eko abuztuaren 4an alkatetzaren agindu bidez obra "Construcciones Igomar, S.L." enpresari ematen zaio 4.648.180 pezetako aurrekontuarekin. Aipaturiko eskailera-kaxako manpara, arkitekto teknikoak eginitako txostenak aipatzen duena, esleipenatik kanpo gelditu zen.

Kontratua 1995eko abuztuaren 8an sinatu zen.

1995eko irailaren 1eko osoko bilkuran eskaile-ra-kaxako manpara "Construcciones Igomar, S.L." enpresari adjudikatu zitzaion zuzeneko esleipenaren bidez hauxe baitzen aurreko obra egin zuena.

Arkitekto teknikok txostena egin zuenetik eskaintzak egin arteko tarte eta iroko zuraren prezio igoera direla eta, konkurrentzia mugatua izan du aipatu eskaintzak.

Arazoa konponduko zen baldin eta Udalak apartamentu babestuetan erabilitako prozedura erabili izan balu, hots, baldintzen orria aldatuz, prezioa igoz eta esleipen berria eginez.

1995eko irailaren 15an arkitekto teknikoak kitapen txostena aurkeztu zuen. Bertan, gertaturikoa aztertu ondoren, "Construcciones Igomar, S.L." enpresak eginitako kitapena ontzat hartzen zuen.

Espedientearen azterketan atzemandako irregulartasun nagusiak honako hauek dira:

- Kreditua zegoelako ziurtagiririk ez da egin.

- Esleipena bi fasetan egiteko arrazoi teknikorik ez dago proiektuan fase bakar bat bertzerik ez baitago.

- Irain ikastetxean egin beharreko konponketei buruzko balorazio txostenak, arkitekto teknikoak egina, 4.087.297 pezetako aurrekontua aurreikusiten bazuen ere, esleipnena 4.648.180 pezetatan egin zen, eskailera-kaxako manpara alde batera utzita.

- Eskailera-kaxako manpararen esleipena "Construcciones Igomar, S.L." enpresari publizitate eta konkurrentziarik gabe eman zitzaion; Aurrekontuaren igoera %30tik gorakoa zenez gero, kontratazio prozedura bereiztuta behar zuen.

- Azkenik, espedientearen ez da Administrazio Baldintzen Orriak eskaturiko dokumentazioa agertzen. Dokumentazio hori esleipen hartzaileari eta behin betiko fidantza ordaindu izanaren ziurtagirari buruzkoa da.



#### V.4.4. Apartamentu babestuen ekipamendua.

Apartamentu babestuen ekipamendua bi esleipenetan banatu da. Alde batetik, sukalde eta ikuztegi-tako amankomuneko elementuen inbertsioa (5.140.222); eta, bertzetik apartamentu bakoitzarako haltzari eta gainerako ekipamendua (12.956.569).

Aipaturiko esleipenen ezaugarriak hauexek dira:

- Esleipen hauek Andra Mari zaharretxearen gobernu batzordeak egin ditu. Udalaren osoko bilkurak haltzari eta gainerako ekipamenduen esleipenari baizik ez dio oniritzirik eman.

- Ez dago baldintza tekniko eta administratiboen orririk, ezta horri buruzko azterketa ekonomikorik ere eta, beraz, talde, epe eta prezioen ezaugarri teknikoak ez daude araututa.

- Esleipena publiko egiteko erabili den prozeduraren berririk ez dago, nahiz eta lehenengoan 4 eskaintza aurkeztu eta bigarreanean 6.

- Sukalde eta ikuztegi-tako ekipamenduari dagokionez, esleipena eskaintzarik merkeenari eman zitzaion, lau eskaintzen amankomuneko elementuak eta zerbitzuon beharra aztertu ondoren. Haltzarien esleipena eskaintzari garestienari eman zitzaion (16.785.465) erositakoaren zenbatekoa 12.959.596 pezetakoa izan zelarik.

- Kredituari dagozkion ziurtagiriak ez dira egin.
- Kontratuak ere ez dira formalizatu.

Aztertutako kontratazio espedientei dagokionez, hauxe azpimarratu nahi dugu:

- Apartamentu babestuetako obren kontratazioan eta Alkaiagako argiteria publikoenean publikitate eta konkurrentziaren printzipioak errespetatu dira. Hala ere, kredituen ziurtagiririk ez dago eta esleipena eskaintza garestienari eman izanaren arrazoiak ere ez dira justifikatu.

- Irain ikastetxeko obrei dagokionez, kontratuen foru legea eta kontratazioari buruzko gainerako legedia errespetatu beharra azpimarratu behar da, batez ere lizitzaileen konkurrentzia, proiektu bakarraren esleipena fase ezberdinetan egitea eta proiektotik kanpoko kontratazioetarako finkatutako muga errespetoari dagokionez.

- Azkenik, ekipamenduen kontratazioari dagokionez, hornikuntzak ere Kontratuen Foru Legeak agindutako prozeduren barne daudela gogoratu nahi dugu. Azpimarratzekoa da eskaturiko elementuen ezaugarriak eta lizitzaileen eskubide

eta betebeharrak finkatzen dituen administrazio baldintzen orririk ez dagoela.

- Elkarte autonomoak azpiegitura administratiborik ez duenez, komenigarria litzateke zenbateko txikiko obra eta hornikuntzen kontratazioa bertzerik ez egitea, gainerakoena Udalaren esku utziz.

#### V.5. BERTZE IRAZKIN OROKOR BATZUK.

##### V.5.1. Prozedura administratibo eta kontableak.

Kontabilitate eta administrazio zirkuituei buruzko prozedura idatzirik ez dago, ezta langile bakoitzak dituen zereginei buruzkorik ere.

Udalaren erregistro liburuek ez dute alkate eta idazkariaren sinadura, ezta Udalaren zigilua ere.

- *Gure gomendioa da barne prozedura administratibo-kontable nagusiak –erosketak, nominak, kobrantzak eta ordainketak– zehatz daitezen, langile bakoitzaren zeregin eta erantzunkizunak finkatuz.*

- *Gure gomendioa da kontuhartzailatza liburu guztiak behar bezala eginbidera daitezen.*

##### V.5.2. Ondasun higiezinak eta komunalak.

Udalak ez ditu bere ondasun higiezin eta komunal guztiak eskrituraturik ezta Jabetzaren Erregistroan erregistraturik ere.

- *Gure gomendioa da ondasun higiezin eta komunal guztiak Jabetzaren Erregistroan erregistratu daitezen.*

#### V.6. INTERESEKO BERTZE ZENBAIT ARLO.

##### V.6.1. Langileriaren soldatak.


Kapituluak, funtsean, Udaleko funtzionarioen, laboralen eta behin behineko kontratatuen soldatak, Gizarte Segurantzari ordaindutako kuotak, montepioak, bosturtekoak eta musika irakasleei eginiko ordainketak biltzen ditu (ikus V.6.a.1). Kitatutako betebeharrak 70.763.260 pezeta dira, gastu guztien %18.

Kapitulu honetan, aurrekontuaren betetzea %94 izan da.

1995eko abenduaren 31n lanean ari zen langileria hauxe zen:

Funtzionarioak	7
Kontratatu administratiboak	3
Aldi baterako lan kontratudunak	4
Guztira	14

Udalak ez du langileriaren organigramarik; hala ere, plantila organikoan oinarrituriko organigrama bat egin da, ondoren aurkezten duguna:



F: Funtzionarioak

KA: Kontratatu administratiboak

AK: Aldi baterako kontratupekoak

Langilearen arloaz eginiko azterketaren gainean, hauxe azpimarratu nahi dugu:

- Zinegotziei ematen zaien diru kopurua finkoa da eta ezin da dietatzat hartu.

- 1995eko ekitaldian langileei soldatetik kanpo 524.346 pezetako ordainketa egin zitzairen. Dirutza hau gastuen 2. kapituluaren kontabilizatu zen.

Aurreko lerroaldean arabera, hona gure gomendioak:

- *Organigrama bat egin eta langile bakoitzari dagozkion zereginak idatzirik zehaztea.*

- *Zinegotziek kobratzen duten dirutza osoko bilkurak onartzea, gastuen konpentsaziotzat eta dietatzat hartzen direla zehaztuz..*

- *PFEZren boletinetan eta Gizarte Segurantzarenetan Udaleko langileriak jasotzen dituen ordainketa guztiak sartzea, indarrean dagoen legedia betez.*

#### V.6.1.a. Musika Eskola.

Lesakako Udaleko Musika Eskola Udalak zuzenean eskaintzen duen zerbitzua da.

Udalak 1.874.338 pezetako dirulaguntza jasotzen du Nafarroako Gobernutik eta ikasleen matri-

kulei esker 7.142.039 pezeta lortzen ditu. Aipatzea da matrikulak ez daudela araututa udal ordeantzetan.

Bertzalde, Udalaren eta Musika Eskolako irakasleen artean ez dago lan harremanik, ezta zerbitzu prestaziorako harremanik ere. Baldintza hauetan ari den langileriak zehazten zaila den kostu ekonomikoa sor lezakeen arriskua dakar.

1995eko lehen sei hilabeteetan Udalak 5.081.605 pezeta ordaindu dizkie zortzi irakasleri, baina ez dago gastua egiaztatzeko agiririk (nomina-faktura). Ordainketak gastuen 1. kapituluaren sartzen dira. Irakasleok emaniko eskola orduak 3.667 dira guti goiti behiti.

95-96 ikasturtearen hasieran (ekitaldiko azken hiruhilabetekoan) egoera aldatu egin zen irakasleak autonomo bihurtu baitziren. Harrez geroztik fakturaren bidez kobratzen hasi ziren, BEZ eta PFEZ barne. 2.862.336 pezetako dirutza hau gastuen 2. kapituluaren sartu zen.

Aurreko lerroaldeotan errandakoaren arabera, hau gomendatu nahi dugu:

- *Udalaren eta musika irakaslearen arteko lan harremanak kontratu bidez formalizatzea.*

- *Musika Eskolako ikasleek ordaindu beharreko kuota udal ordenantzetan arautzea.*

### V.6.2. Ohiko ondasun eta zerbitzuen erosketa.

Kapitulu honek Udalaren funtzionamendurako eta bere ekitaldien garapenerako gastuak biltzen ditu. Kitatutako betebeharrak 75.133.607 pezeta-koak dira, gastu osoaren %19.

Eginiko azterketaren ondorioz, honako hau egiaztatu dugu:

- Zerbitzu prestazio batzuetan ez dago kontratu sinaturik, hala nola Udaletxeko, Irain Ikastetxeko eta Ikastolako garbiketara 94-95 ikasturtean; hileko fakturarik ere ez da aurkezten. 95-96 ikasturtean egoera hau zuzentzen hasi da. Kontzeptuengatik 1995eko ekitaldian zenbatutako dirutza 2.017.743 pezeta da.

- Gastuen fakturak, behin kontuhartzaitzetan jaso ondoren, kontabilitatean erregistratu egiten dira aurretik gastuaren fiskalizazioa egin gabe.

- Kapitulu honetan kontabilizatutako fakturetako batzuk ez dituzte eskatu beharreko baldintza formalak, hala nola IFZ eta fakturaren zenbakia eta data.

BEZ kengarria duten fakturen kontabilizazioa zenbateko osoaren arabera da ez baitago BEZ-a kontabilizatzeke partida berezirik.

Aurreko lerroaldeon arabera, honako hau gomendatu eta gogoratu nahi dugu:

- *Udalaren eta erakundearen zerbitzuan ari direnen arteko kontratuak egin behar dira eta azken hauei faktura eskatu behar zaie.*

- *Kontu Hartzaitzak eskaera guztiak kontrolatzeko prozedurak finkatu behar dira. Halaber, gastuetarako arautegia gauzatu behar litzateke.*

- *BEZ-aren arautegia betetzea, fakturetan zenbakia eta data eskatuz eta baita hornitzailearen eta Udalaren IFZ.*

- *BEZ kengarria duten fakturak zerga oinarriaren arabera kontabilizatzea, BEZ 4. kapituluaren partida berezian kontabilizatuz.*

### V.6.3. Korrituak.

Kapitulu honek maileguen eta gastu finantziaroen korrituak biltzen ditu. 1995eko ekitaldian 23.853.575 pezeta izan dira, gastu osoaren %6.

Mailegu guztien korrituak partida bakar batean kontabilizatzen dira.

Maileguen bermetzat eskatutako abalen korrituak maileguen korrituak balira bezala kontabilizatu dira.

Kapitulu honetan ere, maileguen amortizazioei dagozkien 115.417 pezeta sartu dira.

Udalak finantza-entitate baten 5 kreditu kontuen birfinantzaketa aurrekontutik kanpoko kontuen bidez egin du. Eragiketa hori erregistratzerakoan, gastuak eta dirusarrerak konpentsatu dira eta ABILEko irteera gisa kontabilizatu da 1.000.000 pezeta. Gastuen 3. kapituluaren korritutzat eta dirusarreraren 9. kapituluaren pasibo finantziaroen aldaketatzat kontabilizatu beharra zegoen.

Aurreko lerroaldeon arabera, hona hemen gure gomendioa:

- *Zorpetze eragiketen ondorioz sorturiko gastuen kontrola behar bezala egitea, eragiketa horiek ongi kontabilizatu eta amortizazio kuotak eta korrituen zenbatekoak bereiziz.*

- *Mailegu bakoitzaren korrituak partida ezberdinetan kontabilizatzea.*

- *Gastuen aurrekontu-egozpena bere izaera ekonomikoaren arabera egitea.*

### V.6.4. Emandako ohiko transferentziak.

Kitatutako betebeharrak 17.305.226 pezeta dira kapitulu honetan, betebeharrak guztien %4, behin betiko aurrekontuaren betetzea %96 delarik.

Eginiko azterketaren arabera hauxe egiaztatu dugu:

- *Mankomunitateei ematen zaien dirutza kutxarizpidearen arabera kontabilizatzen da, ordaintzeko dagoena ekitaldiaren amaieran kontabilizatuz.*

Kapitulu honetan Bake Epaitegiko langileriarri emandako 406.956 pezetako dirutza kontabilizatu da.

Aurreko lerroaldeon arabera, hona hemen gure gomendioak:

- *Mankomunitateendako ordainketak urte hasieran aurreikusten den zenbatekoaren arabera egitea, berauen kitapena egiterakoan egin beharreko aldaketak eginez.*

- *Bake epaitegiak batzeko edo zerbitzua modu amankomunean eskaintzeko aukera aztertzea.*

### V.6.5. Inbertsio errealak.

53.897.546 pezeta jotzen duen betebeharrak dituen kapitulu hau gastu guztien %14 da. Honen arrazoia hauxe da: 1995eko dirulaguntza batzuk (84.790.654) 1994ko ekitaldian kontabilizatu direla.

Azterturiko kontratazio espedienteen azterketa, konklusio eta gomendioak txostenaren V.4. atalean daude bildurik.

Udalak 1992ko apirilaren 9an "CSI Transformados, S.A."ri lur eremu bat erostea erabaki zuen 17.946.040 pezetatan. Ordainketa hamar urtetan egitea erabaki zen.

Betebeharraren aitortpena ez dago erregistraturik, urteroko ordainketan baizik ez da islatzen, nahiz eta zorra kontabilitatetik kanpoko txostenetan azaldu.

Aurreko lerroaldeon arabera, hauxe gogoratu eta gomendatu nahi dugu:

*Ondasunen erosketak eta ziurtagiriak sortzaren irizpidearen arabera kontabilizatzea, eragiketetan sortzen diren diru mugimendua alde batera utzita.*

#### **V.6.6. Kapital-transferentziak.**

Kapitulu honetan kitatutako betebeharrak 8.301.684 pezeta dira, gastu osoaren %2; dirutza hau kapital-eragiketarako finantzatzeko erabili izan da, onuradunen ordainik gabe.

Kapituluari buruz eginiko azterketaren ondorioz egiaztatu dugu Udala finantzitzen ari den San Anton ermitako obren fakturak Udalaren izenean daudela.

*Udalak finanziaturiko kapital eragiketen fakturak ondasunaren jabearen izenean jartzea gomendatzen dugu, eta ez obra finantzitzen duenarenean.*

#### **V.6.7. Finantza-pasiboen aldaketak.**

Lerroaldeotan gastuen 9. kapitulua eta dirusarreraren 9.a ere aipatuko ditugu.

Gastuen 9. kapitulua betebeharraren guztien %3 da, 13.485.579 pezeta.

Dirusarreraren 9. kapituluaren onartutako eskubideak eskubide guztien %3 dira, 10.000.000.

Lehenengo eraskinean Lesakako Udalaren maileguak bildu ditugu xehetasun guztiekin eta baita ekitaldian izandako mugimenduak ere.

Kapitulu hauen gainean eginiko azterketan hauxe egiaztatu dugu:

- Mailegu guztien amortizazioak partida bakar batean kontabilizatzen dira.

- Landa katastroaren aldaketagatik atzeratutako ordainketa bat, 528.080 pezeta, gastuen 9. kapituluaren kontabilizatu da eta gastuen 2. kapituluari zegokion.

- V.6.3 kapituluaren aipatu dugun bezala, Udalak kreditu-kontuen birfinantzaketa aurrekontuaren balio independentetan kontabilizatu du. Gastu eta dirusarreraren arteko konpentsazioak sortu dira eta ondasun dirusarreratzat erregistraturiko 150.000 pezeta kapitulu honi zegozkion.

- Diruzaintzaren beharren ondorioz, 1995eko ekainaren 13an Caja Rural de Navarrak 64.000.000 milioiko mailegua eman zion. Hilabete beranduago amortizaturiko maileguaren kontzesioa eta amortizazioa ez dira kontabilizatu.

- Caja Rural de Navarrak 1995eko uztailaren 12an 64.398.257 pezetako mailegua eman zion, interes-tipo hobariduna. Mailegu hau 1995eko ekitaldiko erresultetan zegoen kontabilizatuta, kobratu gabeko dirutza balitz bezala.

Aurreko lerroaldeetan errandakoari jarraituz, honakoa gomendatu nahi dugu:

- *Mailegu bakoitzaren amortizazioak partida berezi bati egozteak, gastuak bere izaera ekonomia-aren arabera kontabilizatu.*

- *Maileguak jasotzen direnean kontabilizatzea.*

- *Maileguen birfinantzaketak eta epe luzeko diruzaintza-maileguak behar bezala kontabilizatzea.*

#### **V.6.8. Zergak.**

Zuzeneko zergak landa kontribuzioa, hiri kontribuzioa, abel kontribuzioa eta lizentzia fiskala dira. Onartutako eskubideak 41.303.658 pezeta dira, dirusarreraren %10.

Zeharkako zergak zirkulazio eta telefono tasak dira. Zenbatekoa 17.834.115 pezeta da, eskubide guztien %5.

Eginiko azterketaren arabera, honakoa egiaztatu dugu:

- Helbideratu ez diren zergen kobrantza borondatezkoa ez da egokia zerga ordaintzaileak, gutxienez, bitan joan behar baitu udal bulegoetara.

- Udalak derrigorrezko dirubilketarako agentzia kanpoko enpresa baten esku utzi du baina 1990etik ez zaio kobratzeko dauden ordainagirien zerrendarik bidali.

- Kobratzeke dauden errezibo guztiak Udaltxean daude.

Aurreko lerroaldeotan errandakoari jarraituz, hauxe gomendatu nahi dugu:

- *Helbideratuta ez dauden zergen kobrantza sistema aldatzea finantza-entitateek kobrantza horiek kudea ditzaten.*

- *Derrigorrezko dirubilketarako agentziarekiko harremanak normalizatzea datuen jaso eta bidaltzerakoan, dokumentuen ereduak sortuz, datak, arduradunak zehaztuz...*

#### **V.6.9. Tasak eta bertzelako dirusarrerak.**

Onartutako eskubideen zenbatekoa 81.068.494 pezeta da, dirusarrera guztien %20.

Kapitulu honetan, funtsean, hirigintza lizentziak, ur hornikuntza, errail, zutoin eta kableak bilzen dira eta baita baso aprobetxamenduak ere.

Eginiko azterketaren arabera, hauxe egiaztatu dugu:

- Zerga batzuen kobrantza ez dago araututa, ez ordenantzetan ezta idatzitako arautegietan ere, horien artean, musika eskolako kuotak eta igerilekuetakoak.

- Ur erroldak ez dira 1995ean onartu.

- Udalak BEZaren aitorpenak eta BEZ liburua kutxa irizpidearen arabera egin ditu.

- 1995eko Sanferminetako egitarauen iragarriengatik BEZ kobratu bada ere, dirutza hori ez da hiruhilabeteko BEZaren aitorpenetan sartu.

- Udalak herriko komunalen aprobetxamenduen erregistroa badu baina tasak 1986tik aurrerakoei bertzerik ez zaizkie kobratzen. Aurretik eginikoei dagokienez, lur eremuen jabetzaren gaineko gatazkak daude. Hau dela eta, Nafarroako Gobernuak, Lesakako Udalak proposaturik, 457/1995 Foru Dekretua onartu zuen, Lesakako Udaleko ondasun komunalen berreskurapenerako hitzarmenaren oinarriak zehazten dituen. Aprobetxamendu hauek herriko ohituretan daude oinarrituta.

1995ean kontabilizaturiko dirusarrera batzuk aurreko bi urteetan eginiko oihan aprobetxamendurako esleipenei dagozkie.

Aurreko lerroaldean arabera honakoa gomen datu eta gogoratu nahi dugu:

- *Ordenantza fiskalak onartzea tasa guziak araututa egon daitezten. Tasak urtero aztertu eta onarturiko aldatetarik indarrean sartuko diren ekitaldiko urtarilaren 1a baino lehen argitaratu behar dira. Kontzeptu bakoitzagatik kobratzen den zenbatekoa betearazi behar da.*

- *Zerga kontzeptu bakoitzaren erroldak kobratu baino lehen onartzea.*

- *BEZaren hiruhilabeteko aitorpenak sortzapean irizpidearen arabera egitea, bertan kontzeptu ezberdinengatik kobraturiko BEZ sartuz.*

- *Oihan aprobetxamenduak esleipenarekin batera egitea, horrek sortzen duen fondoan mugimendua kontuan hartu gabe.*

- *Kapitulua dirusarrera ezberdinak kontabilizatzerakoan sortzapean irizpidea erabiltzea.*

#### **V.6.10. Kapital eta ohiko transferentziak.**

4. kapituluaren onarturiko eskubideak 84.330.872 pezeta dira, dirusarrera guztien %21.

7. kapituluaren onarturiko eskubideak 6.284.772 pezeta dira, dirusarrera guztien %2.

Dirulaguntzak kutxa irizpidearen arabera kontabilizatzen dira gehienetan eta horregatik kitapean ez ditu kobratzeke daudenak islatzen.

4. Kapituluaren erregistraturiko 209.510 pezeta Gizarte Segurantzaren itzulpen eta Nekazaritzako Gizarte Aseguruen kudeaketa sariari dagozkie. Hauek 3. kapituluaren (Tasak eta bertzelako zergak) kontabilizatu beharrekoak ziren.

“Nafarroako Gobernuaren lurralde enteak” 433.000 kontusailean kobratzeke dagoen 3.909.782 pezetako dirutza kontabilizatu da. Dirutza honetatik 500.232 pezeta “Dirusarreretan parte hartzea” 411.000 kontusailean dago kontabilizatuta; bertzalde, 1.386.200 pezeta inbertsio gastuak finantzatzeko eman ziren eta, beraz, 7. kapituluaren (kapital transferentziak) kontabilizatu behar ziren.

1994ko ekitaldian apartamentu babestuendako jasotako dirulaguntza kontabilizatu zen, 19.005.339 pezeta, nahiz eta kontzesioa 1995ekoa izan.

*Dirulaguntzak kontzesioa egitean erregistratzea benetan kobratzeke dagoena islatzeko. Kapitulu honetan sartu beharreko dirusarrerak bere izaera ekonomikoaren arabera hemen erregistratu beharrekoak baizik ez dira.*

#### **V.6.11. Ondare dirusarrerak.**

Eskubide guztien %1 biltzen du kapituluak, zenbatekoa 1.996.781 pezeta delarik.

Eginiko azterketan honakoa egiaztatu dugu:

- Errentan emaniko ondasun higiezin batzuk ez dute errenta-kontraturik.

- Kapitulu honetan kontabilizaturiko 150.000 pezeta dirusarreraren 9. kapituluari dagozkio.

*Errentamendu bakoitzaren kontratua egin eta kapitulu honetan bere izaera ekonomikoaren ara-*



*bera kontabilizatu beharrekoa kontabilizatzea gomendatzen dugu.*

#### **V.6.12. Inbertsioak besterenganatzea.**

Kapitulua onarturiko eskubideak 3.390.401 pezeta dira, dirusarreraren %1.

Kapituluan kontabilizaturiko zenbatekoak nitxoen kontzesioen ondorio dira.

*Diruisarrera hauek 5. kapituluaren kontabilizatzea gomendatzen da (ondare dirusarrerak).*

#### **V.6.13. Zordunak/ hartzekodunak.**

Kobratzeke eta ordaintzeke dauden zenbatekoak aztertzen dira atal honetan, aurreko ekitaldietakoak, eta itxitako ekitaldien erresultatzat kontabilizatu egiten direnak.

Ordaintzeke dagoen zenbatekoa 15.930.863 pezeta da; urtez urteko zenbatekoak honak hauek dira:

Urtea	Zenbatekoa
1994	5.862.351
1993	4.553.670
1992	300.638
1991	2.624.529
1990 eta lehenagokoak	2.589.675
<b>Guztira</b>	<b>15.930.863</b>

Kobratzeke dagoen aurreko ekitaldietako zenbatekoa 32.006.558 pezetakoa da, urtez urteko zehaztapena hauxe delarik:

Urtea	Zenbatekoa
1994	16.223.461
1993	1.533.310
1992	816.846
1991	3.725.073
1990 eta lehenagokoak	9.707.868
<b>Guztira</b>	<b>32.006.558</b>

#### **• Ordaintzeke**

1990tik aurretiko ordaindu gabe bat dago, 1.400.084 pezeta jotzen duena. Udaleko langileek diotenez dirutza hori ez da ordainduko eta, beraz, ezabatu beharko litzateke.

1991ko irailaren 20ko osoko bilkuran 2.510.600 pezetako prezioa zuen lur eremua

erostea erabaki zen. 1995eko abenduaren 31n, ordea, lur eremua ez da erosi eta dirutza hori ordaintzeke balego bezala kontabilizatzen jarraitzen dute.

Udalak aipatu aurrekontua onarturiko behate-behartzat erregistratu zuen arau subsidiarioen errebisioagatik, aurrekontuaren betetzea kontuan hartu gabe. 1993 eta 1994ko "ordaintzeke" kontusailan 3.919.230 eta 5.318.260 pezetako betebeharrak biltzen dira, hurrenez hurren.

#### **• Kobratzeke**

1995eko ekitaldian kobratzeke zegoen 106.485 pezetako dirutza ezabatu da. Neurria 1995eko uztailaren 18ko osoko bilkurak onartu zuen zenbatekoa 105.135 pezetatik finkatuz. Gainerako 1.350 pezeta gaizki eginiko kobrantza baten itzulpena da, 1995eko otsailaren 3an onartutakoa.

1990etik aurretiko ekitaldietan kobratzeke dagoen dirutzaren zati bat, 7.640.727 pezeta, Alkaiaga harrobiaren 1982. urtea baino lehenagoko ustiapenari dagokio.

1991ko ekitaldiko kobratzeke dagoen 2.797.000 pezetako dirutza Eskalamendiko oihan lotearen hirugarren epeari dagokio, 1990eko ekainaren lehenean esleitua. Enpresa esleipendunak 1.657.500 pezetako fidantza du jarria operazioaren bermetzat.

1994ko ekitaldian 1.018.600 pezetako dirutza kobratzeke agertzen da ferietako saltokien tasagatik. Kontzeptu hau bikoizturik dago eta ezabapena egiteko dago.

1994ko ekitaldiko kapital erresulten kobratzeke dagoen 6.848.738 pezetako dirutza apartamentu babestuei dagokie. Gizarte Ongizate Departamentuak, ordea, 196.048 pezetako zorra baizik ez du onartzen.

Aurreko lerroaldean arabera, hona hemen gure gomendioak:

**• Kontabilizazioa faktura edo ziurtagiriak aurkeztean egitea eta ez esleipena egitean.**

**• Arrazoi ezberdinak direla medio, horrela kontabilizaturik egon behar ez duten kobratzeke eta ordaintzeke dauden zenbatekoak ezabatzea.**

#### **V.6.14. Diruzaintza.**

Fondoak 1995eko abenduaren 31n honela daude:

Kontzeptua	Hasierako izakina	Bildutakoa, garbia	Batura	Ordainketa garbiak	Azken izakinak
Ohiko aurrekont.	1.588.059	342.390.207	343.978.266	342.062.193	1.916.073
Guztira	1.588.059	342.390.207	343.978.266	342.062.193	1.916.073
ABIL diruz	6.531.330	69.414.468	75.945.798	66.747.613	9.198.185
ABIL baloreak	10.004.565	9.177.651	19.182.216	5.799.255	13.382.961
ABIL, guztira	16.535.895	78.592.119	95.128.014	72.546.868	22.581.146
Guztira	18.123.954	420.982.326	439.106.280	414.609.061	24.497.219

Kontzeptua	Diruz	Baloreak	Guztira
Ohiko aurrekont.	1.916.073	0	1.916.073
ABIL	9.198.185	13.382.961	22.581.146
Guztira	11.114.258	13.382.961	24.497.219

Eginiko azterketan hauxe egiaztatu dugu:

- Udalak ez du kutzako kontaketa sartu 1995eko abenduaren 31n Udalaren Kutxan dagoen saldo osoa.

- Diruzaintza kudeatzeko Udalak zortzi finantz entitateen bederatzi kontu korrante erabiltzen ditu. Udalaren egoera ekonomikoa kontuan hartuz, hau ez da sistema egokiena kontrola eta erabilgarriaren azterketa zailtzeaz gain, gutxienezko saldoak izatera behartzen baitu.

Aurreko lerroaldean arabera, hauxe gomendatu nahi dugu:

- *Udal diruzaintzaren arauak idatzirik zehaztea.*

- *Udaletxean egiten diren kobrantza eta ordainketak Udalaren Kutxa batean erregistratzea abenduaren 31ko saldoa fondoan kontaketa sartuz.*

- *Kontu korrante eta finantz entitateen kopurua ahalik eta gehien murriztea saldo sinbolikoa dutenak eta eraginkorak ez direnak deuseztatuz.*

#### **V.6.15. Aurrekontuaren balio independente eta laguntzaileen liburua (ABIL).**

Atal ezberdinen gaineko azterketa egin ondoren, horietako batzuk aipatuko ditugu.

- Saneamendu kanona eta saneamendu kanonaren BEZa.

Saneamenduaren kanona eta beronen BEZa "balio" eta "diruz" ataletan kontabilizatu ohi dira. Bion azken izakinak ez datoz bat, ez kobratzeko dauden ordainagiriekin eta ezta NILSari ordaindu beharrekoarekin ere.

- Fidantzak, diruz.

Jarri eta hiruhilabeteko berean itzultzen diren behin-behineko fidantzak ez direla kontabilizatzen antzeman dugu.

- Fidantzak, baloreak.

Kontabilizatu gabeko 550.000 pezetako abala antzeman dugu. Abal hori Alkaiaga auzoko argite-ria publikoaren proiektuari dagokio.

Aurreko lerroaldean arabera, honakoa gomendatu nahi dugu:

- *Udalak aurrekontuz kanpoko eragiketa kontu guztiak azter ditzan, saldoen baliozkotasuna egiaztatuz. Aintzintasunagatik edo egozketa desgokiagatik eskatu behar ez direnak erregularizatu egin behar dira ohiko aurrekontuan sartuz.*

- *Saneamenduaren kanona eta beronen BEZagatik sortzen diren errolda eta kobrantzak behar bezala kontabilizatzea.*

- *"Fidantzak diruz" eta "Fidantzak, baloreak" atalei Udaletxean utzitako fidantza guztiak egozte.*

#### **V.6.16. Hirigintza eta ondarea.**

Lesakako Udalak baditu Udal Arau subsidiarioak. Azken aldiz 1986ko martxoaren 1ean onartu ziren.

*Hirigintza eta Lurralde Antolamenduari buruzko Foru Legeari egokitzea gomendatzen dugu.*

Udalaren lurzoru-ondarea eratu gabe du Udalak.

*Udalaren lurzoru-ondarea eratzeko beharra gogoratzen dugu. Ondarearen barnean behar*

*dute hirigintza-planteamenduak hirilurtzat edo urbanizagarri programatuzat sailkatzen dituen ondare-ondasunak eta, beti ere, lagapenen bitartez eskuratuak, lurzoru zein dirutan izan, hirigintza-desjabetzearen bitartez eta atzera eskuratzeko eskubidea erabiltzearen ondorioz lortutakoak (Hirigintza eta Lurralde Antolamenduari buruzko Foru Legeko 265-271 artikulak).*

Ondasun inbentarioa 1991ko ekitaldian egin zen eta udal ondarean izandako aldaketak ez dira

gaurkotu. Udalaren osoko bilkurak ere ez du inbentarioa onartu.

*Udal ondarean izandako aldaketak kontuan hartu eta inbentarioa gaurkotzea gomendatzen dugu. Halaber, Udalaren osoko bilkurak inbentarioa onartzea gomendatzen dugu.*

Iruñean 1996ko urriaren 8an

Lehendakaria: Francisco Javier Tuñón San Martín

**ERASKINAK.****1. ERASKINA. PASIBO FINANTZIEROEN ZERRENDA 1995eko ABENDUAREN 31n**

Entitateak	Zertarako	Zenbatekoa	Data	Muga Urtea	Korrituak	Zor Bizia 94/12/31	Igoerak	Jeitsierak	Amortizazio kuota	Korrituen kuota	Urtekoa	Zor bizia 95/12/31
C.A.N.	Plazako konponketa	5.000.000	27/05/87	1997	10,70	1.875.000	0	0	625.000	197.452	822.452	1.250.000
C.A.N.	Frontoia Nabaz	6.373.117	27/05/87	1997	10,70	2.389.920	0	0	796.640	235.061	1.031.701	1.593.280
C.A.N.	C. Bº Nabaz	6.000.000	16/12/92	2002	9,75	4.800.000	0	0	600.000	586.800	1.186.800	4.200.000
C.A.N.	Kirolgunea	85.000.000	11/08/93	2013	10,53	80.750.000	0	0	4.250.000	8.524.602	12.774.602	76.500.000
C.A.N.	Ibilgailua erostea	3.500.000	31/08/94	1999	9,87	3.500.000	0	0	700.000	300.219	1.000.219	2.800.000
C.A.N.	Plazako konponketa	2.500.000	29/06/87	1995	13,50	312.500	0	0	312.500	12.794	325.294	0
C.R.N.	Ibilgailua erostea	2.000.000	30/09/90	1995	13,20	400.000	0	0	400.000	48.028	448.028	0
C.R.N.	Ur sarea	7.500.000	08/08/90	2000	13,20	4.500.000	0	3.750.000	750.000	561.750	1.311.750	0
C.R.N.	Irain	55.000.000	25/09/91	2006	13,25	44.000.000	0	44.000.000	0	4.855.357	4.855.357	0
C.R.N.	Biurranako bidea	6.500.000	12/12/90	2000	13,25	3.900.000	0	3.900.000	0	457.289	457.289	0
C.R.N.	Apartamentu babest.	64.000.000	30/06/95	1995	10,53	0	64.000.000	64.000.000	0	551.111	551.111	0
C.A.N.	Udaltzeko 3. fasea	12.778.000	24/10/86	1999	13,50	8.782.900	0	0	1.299.269	492.546	1.791.815	7.483.631
C.L.P.	Udaltzeko 3. fasea	9.500.000	13/08/86	1998	14,00	3.800.000	0	0	950.000	492.282	1.442.282	2.850.000
C.R.N.	Apartamentu babest.	64.398.257	12/07/95	2016	10,48	0	64.398.257	0	0	1.270.322	1.270.322	64.398.257
B.C.L.	Saneam. eta argind.	30.000.000	19/01/90	2002	10,00	23.151.603	0	0	2.296.844	2.230.800	4.527.644	20.854.759
B.C.L.	Apartamentu babest.	10.000.000	06/03/95	2010	mibor+ 0,30	0	10.000.000	0	0	749.306	749.306	10.000.000
B.C.L.	Zorren birfinantz.	52.800.000	21/06/95	2.010	mibor+ 0,30	0	52.800.000	0	0	2.650.633	2.650.633	52.800.000
Naf. Gob.	Elektrifikazioa	1.389.973	1981	1.996	0	185.341	0	0	92.664	0	92.664	92.677
Guztira		422.849.374				182.347.264	191.198.257	115.650.000	13.072.917	24.216.352	37.289.269	244.822.604

## 2. ERASKINA. ANDRA MARI ZAHARRETXEAREN KUTXA KONTAKETA ETA KITAPENA.

## Gastuen aurrekontua. 1995eko ekitaldia (pezetatan)

Kontzeptua	Kontua	Hasierako aurreikusp.	Aldaketak	Behin betiko aurreikusp.	Kitatutako betebeharrak	Kitatutako Ordainketak	Kitatutako Ordaintzeke	Betetzea- ren %	Onartutako osoaren %
Langilearen soldatak	1	25.000.000	0	25.000.000	26.222.201	26.222.201	0	105	73
Ondasun eta zerbitzuen erosk.	2	13.500.000	0	13.500.000	9.490.335	9.490.335	0	70	27
Gastuak, guztira		38.500.000	0	38.500.000	35.712.536	35.712.536	0	93	100

## Dirusarreraren aurrekontua. 1995eko ekitaldia (pezetatan)

Kontzeptua	Kontua	Hasierako aurreikusp.	Aldaketak	Behin betiko aurreikusp.	Onartutako eskubideak	kitatutako dirubilketa	Kobratzeke	Betetzea- ren %	Onartutako osoaren %
Itxitako ekitaldien erresultak	0	0	0	0	4.273.241	4.273.241	0	0	11
Tasak eta bertzel. dirusar.	3	33.000.000	0	33.000.000	34.213.983	34.213.983	0	104	88
Ohiko transferentziak	4	5.500.000	0	5.500.000	244.280	244.280	0	4	1
Ondasun dirusar.	5	0	0	0	28.218	28.218	0	0	0
Dirusarrerak, guztira		38.500.000	0	38.500.000	38.759.722	38.759.722	0	101	100

## Kutxa kontaketa 1995eko abenduaren 31n (pezetatan)

Kontzeptua	Hasierako izakina	Dirubilketa garbia	Guztira	Ordainketa garbiak	Bukaerako izakina
Ohiko aurrekontua	4.273.241	34.486.481	38.759.722	35.712.536	3.047.186
Guztira	4.273.241	34.486.481	38.759.722	35.712.536	3.047.186
ABIL diruz	347.305	2.185.019	2.532.324	2.161.788	370.536
ABIL guztira	347.305	2.185.019	2.532.324	2.161.788	370.536
Guztira	4.620.546	36.671.500	41.292.046	37.874.324	3.417.722

Kontzeptua	Diruz	Baloreak	Guztira
Ohikoa	3.047.186	0	3.047.186
ABIL	370.536	0	370.536
Guztira	3.417.722	0	3.417.722



### 3. ERASKINA. LESAKAKO ALKATEAK AURKEZTURIKO ALEGAZIOAK.

Kontuen Ganbarak Lesakako Udalari buruz egin duen behin-behineko txostenari aurkezturiko alegazioak (1995eko ekitaldia).

1996ko irailaren 26an, Lesakako Udalaren Erregistro Orokorrean Nafarroako Kontuen Ganbararen idazkari orokorraren idazki bat jaso da, eta berarekin batera Lesakako Udalaren 1995eko ekitaldiko behin-behineko txostena. Bertan aipatzen da alegazioak egiteko epeak 1996ko urriaren 7a arte iraungo duela.

Aipatu epe horren barruan, udal obren esleipenei buruzko alegazioak egingo ditugu lehenbizi. Formaren aldetik oker batzuk egin ahal izan direla egia izanik ere, erabakiak nahikoa esplizitoak ez izatea, esate batera, argi utzi nahi dugu beti zuzen jokatzeko saiatu garela. Udal jardueraren helburua, kasu guztietan, Lesakarentzat abantailarik handien zeukan eskaintza aukeratzea izan da.

Lehenbiziko alegazioen ondoren, txostenaren beste arlo batzuei buruzkoak gaineratzen dira.

#### 1.- Hirugarren adinentzakoentzako apartamentu babestuen obrak.

Txosteneko 15. orrian esaten da espedientean ez dela arrazorik ematen esleipena lizitatzailerik garestienari eman zaiola justifikatzeko. Hori egia da. Alabaina, Udalak ongi aztertu zituen aurkeztu ziren hiru proposamenak, eta aukeratu zenari aurkeztatukoetan onena zela iritzi zion, ondoren aipatzen diren arrazoiak medio:

– Eskaintzarik merkeena hurbileko herriko enpresa batena zen, gure udalean lan egin izan duena. Enpresa honek indusketa, urbanizazio, zoladura eta galipota-lanak egiten ditu, baina ez du behin ere eraikuntza bakar bat egin. Gure ustea zen lan honetarako lizitatzailerik horrek ez zuen esperientzia beharrezkoa zela.

– Une hartan Lesakako Udalarentzat kirol-ekipamendu batzuk eraikitzen ari zen enpresa batek egin zuen beste eskaintza bat. Obra horietan hainbat akats atzeman zen eta kontratuaren betetzea ez zen egokia izan.

– Construcciones Etxarte y Cia SL delakoaren proposamenean, ondoren esleipena eraman zuten, hain zuzen (fotokopia kautotua eransten dugu, 1. eraskina), zera esaten zen, “enpresak betidanik eman diola lanik herriko jendeari, eta horrela jokatzeko segitzeko asmoa duela behar iragankorrak edo zabaltzeak gertatuz gero”, eta “Gainera, Udalak ederki daki Construcciones

Etxarte y Cia S.L. enpresak Lesakako profesionalak eta elkarteak erabiltzen dituela laguntza teknikoa, langileak eta materialak behar dituzten, eta honek aberastasuna ematen diola herriari, eta halaxe jokatzeko segitzeko asmoa duela”. Udalak aintzat hartu zuen enpresa-jarduera horrek gure udalean sortzen duen onura.

#### 2.- Alkaiagako argiteria publikoa.

Txosteneko 14. orrialdean esaten da espedientean ez direla esleipena emateko irizpideak adierazten.

Horri buruz esan beharra dago kontratua ekonomikoki abantailarik handien zuen proposamenari eman zitzaiola, eta beronek 5.550.000 pezeta jotzen zuen (BEZ barne). Bazegoen, egia da, merkeagoa zen beste proposamen bat (4.372.299 gehi BEZ), baina honetan esaten zen ez zela prezio horren barruan sartzen zangak ireki edo ixtea edo eta hormigoizko oinarriak (fotokopia kautotua eransten da, 2. eraskina). Obra zibil hau ezinbestekoa zen proiektua aurrera eraman ahal izateko eta lizitazioan parte hartu zuten gainerako lau enpresek aintzat hartzen zuten.

#### 3.- Irain ikastetxeko obra.

Txosteneko 15. orrian esaten da “arkitekto teknikoak txostena egin zuenetik eskaintzak egin arteko tarteak (...) konkurrentzia mugatua izan du aipatu eskaintzak”.

Hau ez da erabat horrela, ezin baitaiteke denbora zenbatu txosten hori egin zen egunetik hasita. Arkitekto teknikoak 1994ko urriaren 28an egin zuen arren, dirulaguntza hainbat hilabete beranduago baizik ez zen onartu: hain zuzen, 1995eko apirilaren 19an jakinarazten zaio Udalari dirulaguntza eman dela. Dirulaguntza guztiz beharrezkoa zen obra horiek egiteko, beraz, dirulaguntzarik eman izan ez balitz obra ez zatekeen egingo. Beraz, Foru Aginduak obra urte hartako irailaren 15 baino lehen bukatu egotea dirulaguntzak emateko baldintza gisa jartzen duela, hortik ateratzen den ondorioa da Udalak bost hilabete baino gutxiagoko epea zeukala baldintzen orria onartu, eskaintzak eskatu, obrak esleitu eta obrak erabat burutzeko. Denbora-premia hauekin, eta epea ez betez gero dirulaguntza galtzen zela bisitatik galdu gabe, bi enpresari gonbitea egin zitzaion bi aldiz, eta bata zein besteak ez zuen interesik agertu. Hori dela eta, abuztuaren 4a arte ez da obra esleitu, eskailerako manpara alde batera utzita. Behin azken hau egiteko eskaini ziren prezioen egokitasunari buruzko txosten teknikoa eduki ondoren, irailaren 1ean (epea bukatu baino hamabost egun lehenago) esleitu zen eskailerako manpararen eraikuntza.

Lan handia behar izan genuen enpresa hura komenitzeko lanak egin zitzaizkion, zeren eta lehen ere eskaintza bat egin baikenion eta ez baitzuen batere interesik agertu. Horregatik ez zitzaion eskatu ez behin betiko fidantza eta ez baldintzen orrian aipatzen diren beste hainbat agiri, ez genuelako nahi enpresa honek atzera jotzea.

Uste dut Udalak ahal izan zuen guztia egin zuela konkurrentzia askea sustatu ahal izateko. Nire ustez arazoaren mamia hauxe da: hainbat foru agindutan obrak egiteko ezartzen diren epeak laburregiak direla, honek toki entitateak behartzen dituelarik gauzak azkar egitera, halamoduz.

#### **4.- Apartamentu babestuen ekipamendua.**

Kontuen Ganbararen behin-behineko txostenak dioten bezala, haltzarien kasuan esleipenak 16.785.465 pezeta jotzen du, nahiz eta gero, benetan erosten denak 12.959.596 pezeta jotzen duen. Hau honela gertatu da hasieran pentsatzen zena baino elementu gutxiago paratu zirelako. Aurrekontuaren barruan bazegoen, esate batera, pasabideko hormari atxikiriko metalezko eskuleku bat, adineko jendeak eutsi ahal izateko. Kontusail hau -1.494.850 pezeta jotzen zuena- ez zen burutu, obraren beraren elementu bezala paratu baitzuten, proiektuak bere baitan hartzen zuen eta. Beharrezkotzat jo ez ziren beste hainbat gastu ere izan zen.

#### **5.- Komunalak.**

17. orrian esaten da Udalak ez dituela erregistraturik Jabetza Ondasunean bere komunalak. Zehatz hitz egiteko, erregistraturik daude. Izan ere, 1905 urteko idazpen bakar batean (3. eraskina) Udalaren izenean erregistraturik daude 4.746 hektarea, 23 area eta 71 zentiarea (hau da, udal dermioaren azaleraren %86'40). Horretaz aparte, bada beste hainbat idazpen, ondoren erosi diren ondare-lursailei dagozkienak.

Egia dena da idazpena oso lausoa dela. Beharrezkoa litzateke lursail bakoitzaren bakarkako idazpena egitea, baina horretarako beharrezkoa da aurretik ondasun komunalen hitzarmen transakzionalak egitea, eta horretarako hainbat urte behar izango dira.

#### **6.- Bake Epaitegiko langileak.**

Ikusapena egin zutenei esan zitzaizkion bezala, arazo honek Nafarroako beste hainbat udal ere ukitzen ditu. Gure herria elkartuta ez dagoenez, bertan lan egiten dutenak ez dira funtzionarioak. Justizia Ministerioak pertsona honi ordaintzeko ezarri duen kopurua sinbolikoa denez, Udalak dirulaguntza bat eman behar izan zuen honetarako, bestela zerbitzua ez baitzen behar bezala eman-

go. Horrek bi arazo dakartza: alde batetik, guk ordaindu beharko ez genukeen gastu bat sortzen du (Lesakan 1996 urtean 469.248 pezeta), eta beste alde batetik, arrisku bat sortzen du, pertsonak horiek, urte askotatik hona hilean hainbesteko kopurua jasotzen ohiturik, uste ahal izaten baitute bere udaletxearekin lan-harremana daukatela.

Kontuen Ganbarak ematen dituen irtenbideak bi dira: bake epaitegiak elkartzea edo, hala badagokio, zerbitzua mankomunitatearen bidez ematea.

Lesakako Udalak, 1996ko irailaren 26an eskatu du Nafarroako Justizia Auzitegi Gorenaren aurrean Bortzirientzat elkarte bat egitea, horrelaxe eskatu baitute ukitutako bost herrietako udalek. Alabaina, batez ere arazo ekonomikoa denez, badirudi gauza konpondu artean urteak pasa daitetzkeela. Konpondu artean, kostuak eta arriskuak hor daude.

Bigarren irtenbidea, hau da, zerbitzua mankomunitatearen bidez ematea, ez zaigu oso bideragarria iruditzen. Udalek bere gain hartu beharko lukete kostua, beti ere, eta sekulako ahalegin burokratikoak egin beharko litzateke -horixe baita hainbat toki entitateren arteko adostasuna eskatzen duen nortasun juridikodun entitatea sortzea- irtenbidea lortzeko, irtenbidea, gainera, behin-behinekoa baizik ez zelarik izango.

#### **7.- Udal diruzaintza arautuko duen arautegia.**

29. orrian esaten da "Udal diruzaintzaren arauak idatzirik zehaztea" beharrezkoa dela.

Guri ere halaxe iruditzen zaigu, hori beharrezkoa dela, baina gure ustea da hori Nafarroako Toki Administraioaren Foru Legearen erregelamenduzko garapenaren bidez egin behar dela.

#### **8.- Zaharretxeak Erakunde Autonomo izaten segitzea edo ez.**

Honi buruz gure iritzia da egokiagoa dela Andra Mari Erakunde Autonomoak bere hartan irautea, behar diren kontrolak eta aholkularitza ezarri eta gero.

Txostenak dioten gainerakoan, aipatzen diren okerrak aintzat hartu eta berriro gerta ez daitezen ahal dugun guztia egingo dugu. Izan ere, lanean ari gara Udalaren inbentarioa urtea bukatu baino lehen onartu ahal izateko, eta ikasturte honetan kontratuak egingo zaizkie musikariei, Ganbarak esaten duenarekin bat etorritz. Ondoren saiatuko gara gainerako hobekuntzak martxan jartzen.

Lesaka, 1996ko urriaren 3a

Alkatea: José Luis Etxegarai Andueza

## **Berako Udalaren fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1996ko urriaren 14an eginiko bilkuran, Kontuen Ganbarak egindako Berako Udalaren fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldikoa, argitara dadila agintzea erabaki zuen.

Iruñean, 1996ko urriaren 15a

Lehendakaria: M<sup>a</sup> Dolores Eguren Apesteguía

### **Berako Udalaren fiskalizazio txostena, 1995eko ekitaldikoa, Kontuen Ganbarak egina**

#### **AURKIBIDEA**

- I. Helburua. (21. or.).
- II. Norainokoak eta mugak. (21. or.).
- III. Iritzia. (22. or.).
  - III. 1. Berako Udala. (22. or.).
  - III. 2. Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskola. (22. or.).
- IV. Finantza egoerak: 1995ko aurrekontuaren burutzea. (22. or.).
- V. Ondorioak eta gomendioak. (23. or.).
  - V. 1. Aurrekontuaren betetzearen inguruko iruzkin nagusiak. (23. or.).
  - V. 2. Egoera ekonomikoa 95/12/31n. (24. or.).
  - V. 3. Erakunde autonomoa. (24. or.).
  - V. 4. Bertze irazkin orokor batzuk. (25. or.).
  - V. 5. Intereseko bertze zenbait arlo. (25. or.).
- Eraskinak.** (32. or.).
  - 1. Eraskina. finantza-pasiboen zerrenda 95/12/31n. (32. or.).
  - 2. Eraskina. Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolaren gastuen eta dirusarreraren kitapena. (33. or.).

#### **I. HELBURUA.**

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/90 Foru Legearen eta Kontuen Ganbara arautzen duen abenduaren 20ko 19/84 Foru Legearen arabera, Berako Udalaren kudeaketa ekonomiko eta finantzieroa eta baita 1995eko ekitaldiko gastuen eta dirusarreraren aurrekontuaren betetzea eta fiskalizatzeari ekin zaio.

Aztertutako udal erakundeari ezar dakioken legeriaren barruan honako hauek biltzen dira funtsean: uztilaren 2ko 6/90 Foru Legea, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa; apirilaren 2ko 7/1985 Legea, toki erregimenaren oinarriak arautzekoa; 1981eko ekainaren 8ko Araua, toki ogasunak eraberritzeari buruzko (TOA), eta hori garatzeko Erregelamendua (TOE), 1981eko abenduaren 17koa; orobat, Nafarroako toki erakundeei eskuarki ezar dakiekeen gainerako arautegia.

Txostenaren xedea da gure iritzia ematea hurrengo gaiei buruz:

- a) 1995eko aurrekontuaren garapena eta burutzea.
- b) 1995eko abenduaren 31n zegoen ondare egoera azaleraztea eskuarki onartzen diren kontabilitate hatsapenen arabera.
- c) Udalaren jarduera ekonomiko eta finantzieroa legezkontasuna hatsapenaren arabera garatzen den ala ez.

Bera Nafarroako iparraldean dago. Udalak berak emaniko datuen arabera, 3.539 biztanle eskubidedun zituen 1995eko abenduaren 31n.

#### **II. NORAINOKOAK ETA MUGAK.**

Kontuen Ganbarak, bere jarduketa programa-ekin bat, Berako Udalaren fiskalizazioa burutu du, 1995eko ekitaldiari dagokiona.

Udaleko kontabilitatea aurrekontuaren betetzearen jarraipena egitera mugatzen da (aurrekontu kontabilitatea). Ez da ekitaldi bakoitzaren bukaran Udalaren ondare egoera islatzen duen kontabilitate orokorrik ageri.

Dirusarrera eta gastuei buruzko kapitulu ekonomiko ezberdinak berrikusteari lotu zaio burutu den txostenean. Antolaketa, kontabilitate eta barne kontroleko alderdiak jorratu dira, gorabeheren arabera eta Udalari bidali zitzaion galdesortak azaleratutako arazoekin bat beharrezkotzat jotako frogak egin direlarik.

Berako Udalak erakunde autonomo bat du, Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskola, herrian musika irakaskuntza eskaintzea helburu duena. Erakunde honek aurrekontu kontabilitatea du eta kontuok ez dira Udalarenekin biltzen. 1996ko ekitaldian erakundearen aurrekontua Udalarenekin batera onartu da.

Gure lanak izan dituen mugak, funtsean, inbentarioa ukitzen duen ezarritako kontabilitate-sistema eskasak eragin du. Inbentarioa ez da 1991tik gaurkotu.

Txostenak prozedura kontableak eta administratiboak hobetzeko ohar eta gomendioak biltzen ditu. Eraskinetan maileguen koadroa eta Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolaren gastu eta dirusarreraren kitapena biltzen dira.

Zelaiko lana 1996ko ekainean egin zen.

Berako Udaleko langile guztien laguntza eskertu nahi dugu, gure lana burutzea erraztu egin baitute.

### III. IRITZIA.

Burururiko fiskalizazioaren esparruan Berako Udalaren gastu eta dirusarreraren betetzearen egoera aztertu dugu, 1995eko ekitaldiari dagokiona.

Gure azterketan egoki eta beharrezkotzat jotako ikuskapen-arau eta prozedurak erabili ditugu.

Gure azterketaren ondorioz, horra hurrengo iritzia:

#### III.1. BERAKO UDALA.

##### III.1.1. Aurrekontuaren garapena eta betetzeari buruzkoan.

1995eko aurrekontuaren betetzearen egoerak Udalak fiskalizaturiko ekitaldian eginiko eragiketen multzoa behar bezala azaltzen badu ere, badira salbuespen batzuk:

- 95/12/31n kontabilizaturiko zergazko kobratu gabeen eta gordailuan dauden ziurtagiriaren arteko aldeak. (V.5.5 eta V.5.9. atalak).

- Zaharretxeko obren ziurtagiriaren zati bat (5.220.604 pezeta) 1995ean kontabilizatu zen, nahiz eta 1996ko urtarrilekoa izan. (V.5.4. atala).

- Baso aprobetxamenduen kontabilizazioa kutxa irizpidearen arabera egiten da. Horren ondorioz, aurreko ekitaldian esleitutako batzuk 1995ean biltzen dira eta 1995eko batzuk ere hurrengoan. (V.5.5. atala).

- Indarrean dagoen legediak aurrekontua urte bakoitzeko urtarrilaren 1a baino lehen onartu behar dela agindu arren, Berako Udalak 1995eko ekainaren 23an onartu zuen behin betikoz. Atzerapenak eta, horren ondorioz, aurrekontu luzatua indarraldiak arazoak sortzen ditu gastu batzuk egiterakoan.

- Kitapenarekin batera onarturiko kreditu aldatetarako (7.461.050 pezeta) behin gastua egin eta gero burutu dira.

##### III.1.2. Ondare egoeraren azalpena.

Kontabilitate sistema eskasak eta gaurkoturiko inbentariarik ez izateak ez digute biderik ematen Udalak 1995eko abenduaren 31n zuen ondare egoeraz iritzirik emateko.

##### III.1.3. Legezketasuna.

Berako Udalaren jarduera ekonomiko-finantzieroa legezketasun hatsapenak errespetatuz egiten da. Dena den, txostenean aipaturiko arauhauste batzuk antzeman ditugu langileria, profesionalen PFEZ eta BEZaren arloetan.

#### III.2. ISIDORO FAGOAGA UDAL MUSIKA ESKOLA.

Erakunde autonomoak aurkezturiko gastu eta dirusarreraren kitapenak ongi azaltzen du, oro har, 1995eko ekitaldiko jarduna. Salbuespenak honako hauek dira:

- Gastuen kontusail batzuetan, gastuak aurrekontua baino handiagoak izan dira.

- 1994ko kitapenean ordaintzeke agertzen diren zenbatekoak, 1.379.134, 1995eko aurrekontuko kontusailetan berriro kontabilizatu dira.

- Ekitaldian lan harremanik gabeko bortz irakasleri 1.625 ordu pagatu zaizkie (4.575.627). Honek arazo laboral eta fiskalak sor litzake. Egoera hau 1996ko ekitaldian konpontzen ari da.

Laburbilduz eta ondorio nagusi gisa esan dezakegu Udalak bilduriko aurrekontu informazioak ekitaldiko gastu eta dirusarrerak ongi islatzen baditu ere, Kontuen Ganbararen iritziz Udalak aurrekontu eta ekonomi arloak hobetzeko neurriak hartu beharko lituzkeela. Horietako bat, erosketa guztien kontrola Kontuhartzaitzak egin ahal izateko behar diren prozedurak martxan jartzea; halaber, zergazko dirusarreraren aldizkako adostekak egin beharko lituzke kontabilitate eta gordailutza artean. Bertzalde, Udalaren egoera finantzieroa larria da, dirusarreraren erresulten zenbateko handia dela medio, batez ere. Horrek diruzaintzan arazoak sortzen ditu. Hau dena kontuan hartuz txostenak biltzen dituen gomendioak egin ditugu.

#### IV. FINANTZA EGOERAK: 1995EKO AURREKONTUAREN BETETZEA.

Horra 1995eko gastu eta dirusarrera aurrekontuaren betetzearen isla:

**GASTUEN AURREKONTUAREN KITAPENA**  
1995eko ekitaldia (pezetatan)

Kapitulua	Kontua	Hasierako aurreikusp.	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Kitatutako betebeharrak	Kitatutako ordainketak	Ordaintzeke	Betetzearen %	Onartutako guztiaren %
Itxitako ekitaldien emaitzak	0	37.128.300	(626.892)	36.501.408	36.501.408	35.226.638	1.274.770	100	8
Langileriaren gastuak	1	61.316.422	0	61.316.422	60.617.161	60.149.106	468.055	99	13
Ohiko ondasun eta zerb. erosketa	2	63.690.458	1.622.803	65.313.261	56.290.985	52.378.920	3.912.065	86	12
Korrituak	3	26.382.036	(509.652)	25.872.384	23.927.360	23.927.360	0	92	5
Ohiko transferentziak	4	36.154.343	17.466	36.171.809	31.206.042	26.878.118	4.327.924	86	7
Inbertsio errealak	6	187.507.814	66.151.936	253.659.750	215.075.538	95.571.068	119.504.470	85	47
Kapital transferentziak	7	0	8.301.684	8.301.684	8.301.684	5.662.951	2.638.733	100	2
Finantza-pasiboan aldaketak	9	38.255.335	5	38.255.340	37.692.520	37.692.520	0	99	8
<b>Gastuak, guztira</b>		<b>450.434.708</b>	<b>66.655.666</b>	<b>517.090.374</b>	<b>461.311.014</b>	<b>331.823.730</b>	<b>129.487.284</b>	<b>89</b>	<b>100</b>

**DIRUSARREREN AURREKONTUAREN KITAPENA**  
1995eko ekitaldia (pezetatan)

Kapitulua	Kontua	Hasierako aurreikusp.	Aldaketak	Behin betiko aurreikuspena	Onetsitako eskubideak	Likidatutako bilketa	Kobratzeke	Betetzearen %	Likidatutako guztiaren %
Itxitako ekitaldien emaitzak	0	107.860.965	(3.840.179)	104.020.786	104.020.786	68.864.983	35.155.803	100	21
Zuzeneko zergak	1	50.357.526	0	50.357.526	52.178.172	46.717.662	5.460.510	104	11
Zeharkako zergak	2	20.153.631	0	20.153.631	20.350.418	17.418.784	2.931.634	101	4
Tasak eta beste dirusarrerak	3	87.075.134	0	87.075.134	90.927.248	65.227.781	25.699.467	104	18
Ohiko transferentziak	4	92.732.161	0	92.732.161	93.953.600	91.460.823	2.492.777	101	19
Ondare dirusarrerak	5	1.774.000	0	1.774.000	271.452	271.452	0	15	0
Inbertsio errealak besterentzea	6	237.600	395.450	633.050	633.050	633.050	0	100	0
Kapital transferentziak	7	122.976.356	9.209.711	132.186.067	116.289.660	17.660.034	98.629.626	88	24
Finantza-pasiboak	9	38.000.000	0	38.000.000	15.000.000	15.000.000	0	39	3
<b>Dirusarrerak, guztira</b>		<b>521.167.373</b>	<b>5.764.982</b>	<b>526.932.355</b>	<b>493.624.386</b>	<b>323.254.569</b>	<b>170.369.817</b>	<b>94</b>	<b>100</b>

## V. ONDORIOAK ETA GOMENDIOAK.

Ondoren ohar, ondorio eta gomendioak azaltzen ditugu, Udalaren barne antolaketa eta barne kontrol sistema hobetzeko egokitzat jotzen ditugunak, hartara kudeaketa hobetzea lortu ahal izateko.

### V.1. AURREKONTUAREN BETETZEAREN INGURUKO IRUZKIN NAGUSIAK.

Iritziari buruzko III. atalean esandakoarekin bat etorritik, aurrekontu betetzearen ondoriozko alderdiok azpimarratu nahi ditugu.

1995ean indarrean izan den aurrekontua 1995eko maiatzaren 2ko osoko bilkurak onartu zuen, hasiera baten, eta 1995eko ekainaren 23an argitaratu zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean behin betiko onarpena. Aurrekontuaren onarpena atzeratzeak arazoak sortzen zituen zenbait gastu egiterakoan.

Isidoro Fagoaga Udal Musika Eskolaren aurrekontua ez da sartu Udalarenaren barruan.

1995eko aurrekontuaren kitapena 1996ko maiatzaren 2ko osoko bilkuran onartu zen eta bertan maileguen aldaketaren espedienteak sartu ziren, 7.461.050 pezeta. Aldaketa hauek gastuak egin ondoren burutu dira.

Zergaz besteko gastu eta dirusarreraren kontabilizazioa ordainketa eta kobrantza egitean burutzen da. Ekitaldia ixtean ordaintzeke eta kobratzeke dauden zenbatekoak kontabilizatu egiten dira.

1995eko kitapenaren ondoriozko aurrekontu emaitza, erresultak alde batera utzita, negatiboa da: 35.206.006 pezeta. Kitatutako betebeharren zenbatekoa 424.809.606 pezeta da eta onartutako eskubideak 389.603.600 pezeta. 1994an, aldiz, Udalak 52.271.842 pezetako superabita izan zuen.

Gastu erresulten deuseztapenak 626.892 pezeta izan dira eta dirusarrerak 3.840.179 pezeta. Hau dela eta, itxitako ekitaldien defizitaren zenbatekoa 3.213.2876 pezeta da.



Gastuen aurrekontuaren betetze maila %89 izan da 1995ean. Kapitulu nagusia inbertsio erre-arena da, gastu guztien %47rekin, 215.075.538 pezeta.

Dirusarreraren aurrekontuaren betetze maila %94 izan da. Kapitulu nagusiak ohiko transferentziak eta kapital transferentziak dira, 93.953.600 eta 116.289.660 pezeta, hurrenez hurren, bien artean gastu guztien %43 biltzen dutelarik.

Aurreko lerroaldeon arabera, hauxe gomendatu nahi dugu:

- *Udalaren eta erakunde autonomoaren aurrekontua indarrean dagoen legediak finkatzen dituen epeen barruan onartzea. Honek aurrekontua kudeaketa tresnatzat erabiltzeko bidea ematen du.*

- *Kredituen aldaketak gastuak egin baino lehen onartzea. Horretarako Kontuhartzaitzak eskabide guztiak kontrolatu beharko lituzke.*

- *Gastuen kontabilizazioa sortzapen irizpidearen arabera egitea. Gastuak onartu ahala Kontuhartzaitzan kontrolatu behar dira eta jasotako dirulaguntzen kontabilizazioa ere laguntzak ematean egin behar da.*

## V.2. EGOERA EKONOMIKOA 1995EKO ABENDUAREN 31N.

1995eko ekitaldiaren kitapenaren arabera, Udalaren egoera ekonomikoa honako hau da:

	Pesetak
Dirusarreraren erresultak	170.369.817
Diruzaintza saldoa	(8.569.161)
Gastuen erresultak	(129.487.284)
Gerakina	32.313.372

Kobratzeke dauden zenbatekoen antzintasuna kontuan hartuz, baliteke kobratzen zailak diren saldoak izatea eta horrek gerakina gutxitu egingo luke.

Ondoren 1994 eta 1995eko aurrekontu betetzetik ateratako ratio eta magnitude batzuk aurkeztuko ditugu.

Ratioak eta magnitudeak	1994(*)	1995
Aurrekontu emaitza (1)	52.271.843	(35.206.006)
Dirusarreraren betetze maila	94%	94%
Gastuen betetze maila	82%	89%
Aurrezki gordina (2)	81.346.060	109.566.702
Aurrezki garbia (3)	16.130.990	47.946.822
Zorpetze maila (4)	29%	24%

Zorpetze muga (5)	36%	43%
Gastu publikoa biztanleko	88.269	120.037
Langileriaren indizea (6)	19%	14%
Inbertsio indizea (7)	30%	58%
Zerga-presioa (8)	36.562	46.187
Dirulaguntzen menpetasuna (9)	53%	54%

\* 1994ko datuak ikustatu gabe daude.

- (1) Aurrekontu emaitzak ez ditu biltzen itxitako ekitaldietako emaitzak.
- (2) Ohiko dirusarrerak (Dirusarreraren 1 eta 5 arteko kapituluak) Funtzionamendu gastuak (Gastuen 1, 2 eta 4 kapituluak)
- (3) Aurrezki gordina-Zama finantzieroa (Gastuen 3 eta 9 kapituluak).
- (4) Zama finantzieroa/Ohiko dirusarrerak x 100
- (6) Aurrezki gordina/Ohiko dirusarrerak x 100
- (6) Langileriaren gastuak / Gastuak
- (7) Inbertsio gastuak + Ohiko transferentzien gastuak / Gastuak
- (8) Zergazko dirusarrerak (1, 2 eta 3 kapituluak)/ Biztanle kopurua
- (9) Transferentzien dirusarrerak (4 eta 7 kapituluak) / Dirusarrerak

Jasotako datuak konparatuta, hona hemen konklusio nagusiak:

- 1995eko aurrekontu emaitza negatiboa Udalak eginiko inbertsioen ondorioa da, aurreko ekitaldiko datuekin konparatuz inbertsioak %325 igo baitira.

- Aurrezki gordin eta garbiaren magnitudeak hobetu egin dira 1994ko ekitaldiko datuekin alderatuz, batez ere "Tasak eta bertze dirusarrerak" kapituluaren dirusarreraren igoerari esker.

- Zorpetze maila 5 puntu gutxitu da ohiko dirusarreraren igoera eta korrituen jaitsierari esker. 1995ean zorpetze maila %24 izan zen. Indizea muga baino murriztagoa izan arren, kezagarria da.

- 1995ean inbertsio eta gastu publikoen biztanleko indizeak nabarmen handitu dira inbertsioen igoera handiaren ondorioz.

- Langileriaren indizearen jaitsiera gastu guztien igoerak eragin du aurreko urteko datuekin alderatuz langileriaren gastuak %1 bertzetik ez baitira handitu.

- Zerga-presioaren igoera "baso aprobetxamenduak" eta "hirigintza lizentziak" kontzeptuetan izandako dirusarren igoerak eragin du.

1995eko inbertsioak direla medio, Udalak 45 bat milioiko mailegua eskatuko du 1996ko ekitaldian eta horrek udalaren urteko zama finantzieroa handitu egingen du.

## V. 3. ERAKUNDE AUTONOMOA.

Berako Udalaren erakunde autonomoa Isidoro Fagoaga Udala Musika Eskolaren Udala Patronatua da. 1995eko ekitaldian 20.774.027 pezetako aurrekontua zuen.

2. eraskinean erakundearen gastu eta dirusarreraren kitapena erantsi dugu.

Patronatuaren aurrekontua toki entitateen aurrekontuen egiturara dago egokituta. Udal osoko bilkurak ez du erakunde autonomoaren aurrekontua onartu.

Erakundeak ez du langileriaren plantila organikorik.

Erakundearen fiskalizazioa udal kontuhartzailtzaren zeregina bada ere, 1995ean ez du egin.

Kontabilitatea eskuz egiten da.

Gastuen betetze maila %102 izan da zenbait kontusailetan gehiegizko gastuak egin direlako.

Musika Eskolako ikasleei kobratzen zaizkien prezioak Patronatuaren Batzordeak onartu ditu baina ez dira Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu.

1994ko ekitaldiaren kitapenean ordaintzeke zegoen 1.379.134 pezetako dirutza 1995eko aurrekontuaren dirusailetan sartu da.

1995eko ekitaldian 4.575.627 pezeta ordaindu zaizkie ez lan harremanik ezta Gizarte Segurantzaren eta PFEZen kotizaziorik ere ez zuten hainbat musika irakasleri. Ordainketa hauek bortz irakasleri egin zitzaizkien eskola orduko 2.816 pezetako prezioarekin. Egoera hau aurten zuzentzen ari da egin beharreko kontratazioak eginez.

Askotan antzeman dugu fakturek ez dituztela BEZaren arautegiak eskatzen dituen baldintza formalak.

Aurreko lerroaldeon arabera, honakoa gomen-datu nahi dugu:

- *Erakunde autonomoaren existentzia bera planteatzea, haren eragiketen munta eta jarduketara sistema ikusita.*

Edonola ere,

- *Patronatuaren aurrekontua Udalarenarekin batera tramitatzea.*

- *Lanpostu guztiak bildu beharko dituen plantila organikoa egin eta aurrekontuarekin batera tramitatzea.*

- *Erakunde autonomoaren jarduerari buruzko fiskalizazioa udal kontuhartzailtzak egin dezala.*

- *Patronatuaren kontabilitatea informatizatzeo aukera aztertu eta administrazioaren arduradunarendako formazio plan bat egitea.*

- *Aurrekontuan finkatutako zenbatekoak gaintzen dituzten gastuak ez izateko behar den prozedura martxan jartzea.*

- *Udal Musika Eskolako ikasleei kobratuko zaizkien tasak finkatzen dituen zerga ordenantza NAOn argitaratzea.*

- *Musika Eskolako irakasleei ordaindu beharreko zenbatekoak lan edo zerbitzugintza kontratuen bidez justifikatzea.*

- *BEZaren arautegia betetzea jasotako fakturretan behar diren datu guztiak eskatuz: data, fakturaren zenbakia, patronatuaren IFZ eta hornitzailearena.*

#### V.4. BERTZE IRAZKIN OROKOR BATZUK.

##### V.4.1. Prozedura administratibo eta kontableak.

Kontabilitate eta administrazio zirkuitu nagusiei buruzko prozedura idatzirik ez dago, ezta langile bakoitzak dituen zereginiei buruzkorik ere.

*Gure gomendioa da barne prozedura administratibo-kontable nagusiak –erosketak, nominak, kobrantzak eta ordainketak– zehatz daitezen, langile bakoitzaren zeregin eta erantzukizunak finkatuz.*

Udalaren erregistro liburuek ez dute alkate eta idazkariaren sinadura, ezta Udalaren zigilua ere.

*Gure gomendioa da liburu guztiak behar bezala eginbidera daitezen.*

##### V.4.2. Ondasun higiezinak eta komunalak.

Tracasa enpresak 1991n egin zuen katastroa dauka Udalak, gaurkotua izan ez dena.

Udalak ez ditu bere ondasun higiezin eta komunal guztiak eskrituraturik ezta Jabetzaren Erregistroan erregistraturik ere.

*Gure gomendioa da udal ondasun guztiak Jabetzaren Erregistroan erregistra daitezen.*

#### V.5. INTERESEKO BERTZE ZENBAIT ARLO.


##### V.5.1. Langileriaren soldatak.

Kapituluak, funtsean, Udaleko funtzionarioen, lan kontratatuen eta behin-behineko kontratatuen soldatak, Gizarte Segurantzaren kuotak, montepionarenak eta bosturtekoak biltzen ditu. Kitatutako betebeharrak 60.617.161 pezeta dira, gastu guztien %13.

1995eko abenduaren 31n lanean ari zen langileria hau da:

Funtzionarioak	6
Kontratatu administratiboak	2
Lan-kontratadun finkoak	1
Aldi baterako lan kontratudunak	4
Guztira	13

Udalak organigramarik ezbadu ere, horren hurbilpena erantsi nahi dugu:



(1) Funtzionarioak

(2) Kontratu administratiboak

(3) Lanaldi murrizteko kontratuak, asteko 14 ordu.

A, B, C, D: Mailak

Prozeduren eta kontabilizaturiko zenbatekoen azterketaren ondorioz honakoa egiaztatu dugu:

- Herriko festetan eginiko lanengatik langileei ordainduriko aparteko orduak, 147.611 pezeta, ez dira sartu Pertsona Fisikoen Gaineko Errentaren aitortzean eta Gizarte Segurantzaren ere ez da berauen kotizazioa egin.

- Gizarte Segurantzaren araubide orokorrean dagoen funtzionario baten kotizazioak kontratatupeko langile balitz bezala egin dira 1995eko abuztura arte eta kotizatu den gehiegizko dirutzaren itzulpena ez da eskatu.

- Gordailuzainaren lan harremana ez dago lan kontratuan araututa. Lanaldi murrizteko dedikazioa du eta bere soldata osoko bilkurak onartu du. 1995eko maiatza arte ez zioten PFEZen kenketa egiten.

- Udaleko zinegotziei ordaintzen zaizkien sei hilabeteko asignazioak onartzerakoan ez da bile-

retara joan diren ala ez kontuan hartu, ez batzordeetara ezta osoko bilkuretara ere. Aurrekontuan sartuz onartu egin dira.

- Kapitulu honetan kontabilizatu dira Bake Epaitegiko langileendako sariak, 500.687 pezeta.

Aurreko leerroaldean ondorioz, honakoa gomendatu nahi dugu:

- *Langileei ematen zaizkien soldata guztiei PFEZaren kenketak egin behar zaizkie eta baita Gizarte Segurantzarenak ere, indarrean dagoen legeriaren arabera kotizatuz.*

- *Agintari politikoen sariak batzorde eta osoko bilkuretara joan izanaren arabera egitea, osoko bilkuraren erabakian dirutza hori dietatzat eta gastuen konpentsaziotzat jotzen dela zehaztuz.*

- *Bake epaitegiak biltzeko xede duten ekinbi-deak burutzea eta, hala bada, zerbitzua amankomunean emateko aukera aztertu.*

### V.5.2. Ohiko ondasun eta zerbitzuen erosketa.

Gastuen II. kapitulu honek Udalaren funtzionamendurako eta bere jardueraren garapenerako beharrezkoak diren gastuak biltzen ditu. Kitatutako betebeharrak 56.290.985 pezeta dira, gastu guztien %12.

Eginiko azterketaren ondorioz, honakoa egiaztatu dugu:

- Jasotako fakturek askotan ez dituzte BEZaren arautegiak eskatzen dituen baldintza formak.

- Kapituluaren "Kultura" kontusailean Udalak herriko zenbait kultur eta kirol talderen ekitaldiarako ematen dituen ekarpenak gastutzat sartu dira.

- Festetako gastuen justifikazioa hartu-agiri eta banku-agiri bidez egiten da. Bertzalde, Udalarekiko harremanik ez duten pertsona fisikoei ordainketak egiten zaizkie.

Aurreko lerroaldeon arabera, honakoa gomen datu nahi dugu:

- *BEZaren arautegia betetzea, fakturen zenbakia, data eta hornitzailearen eta Udalaren IFZ eskatuz.*

- *Herriko kirol eta kultur taldeen ekitaldiarako ematen diren ekarpenak ohiko transferentzien IV. kapituluaren kontabilizatzea.*

- *Festetako gastuak behar bezala justifikatzea euskarri egokiak erabiliz eta, ahal den neurrian, Udalarekiko lan edo merkataritza harremanik ez dutenei ordainketarik ez egitea.*

### V.5.3. Emandako ohiko transferentziak.

Atal honetan ohiko eragiketarako finantzatzeko kredituak biltzen dira, onuradunen ordainik gabekak. Kapituluaren kontabilizatutako zenbatekoa 31.206.042 pezeta da, gastu guztien %7.

Udalak ez du dirulaguntzak emateko arautegirik. Aurrekontuaren tramitazioa egitean onartutzat ematen dira dirulaguntzak.

*Hona gure gomendioa: hainbat onuradunendako dirulaguntzak ematea arautu dadila, dagozkion erabakien bidez, eta dirulaguntzak emateko arautegia egin.*

### V.5.4. Inbertsio errealak.

Gastuen VI. kapituluak Udalak azpiegiturak sortzeko eta ondasunak erosteko eginiko gastuak biltzen ditu. Kitatutako betebeharrak 215.075.538 pezeta egiten dute.

Ekitaldian zehar eginiko inbertsio nagusiak ondoren zehaztuko ditugu:

Inbertsioak	Zenbatekoa
Zaharretxea	127.784.370
Baserrietako bideen II fasea	46.659.476
Eskualdeko ikastetxeko kiroldegia	8.431.327
Oihan-landaketak	6.421.878
Suhiltzailetxeko materiala	4.710.873
Isurketa-esparruaren bereoneratza	3.948.936
Guztira	197.956.860

Udalak leasing kontratuen bidez erosi ditu Udaletxe eta Osasun Zentroko telefonoak eta ibilgailu bat. Ordainduriko kuotak kapitulu honetan kontabilizatu dira. Hiru kontratuen azken kuotak 1995ean ordaindu dira.

Ikusi ahal izan dugu kopuru txikiko faktura batzuk inbertsioen kapituluaren kontabilizatu direla, ohiko ondasunen erosketei buruzkoan jaso ordez.

Zaharretxeko obren hamargarren ziuertagiria, 1996ko urtarrilekoa, 12.226.457 pezeta, 1995ean kontabilizatu da 5.220.604 pezetatan eta bi zenbatekoen arteko aldea 1996ko ekitaldian kontabilizatu da.

Kapitulu honetan kontabilizaturiko faktura batzuk ez dute BEZaren arautegia betetzen.

Udaletxetik kanpoko profesionaleri eginiko ordainketetan ez da PFEZ-en kenketa egin, 1995eko ekitaldian.

Kontratazioaren azterketan honako espedienteok aztertu ditugu: zaharretxeko obrak, baserrietako bidearen II. fasea eta suhiltzailetxeko aparkalekuaren urbanizazioa. Kitatutako betebeharrak 176.967.543 pezeta dira, kapituluaren gastu guztien %82. Espedienteotan Kontratuen Foru Legea betetzen dela frogatu dugu.

Ondoren, azterturiko hiru espedienteak aipatzen ditugu:

- San Jose zaharretxea

1994ko apirilaren 26an Nafarroako Gobernuaren, Berako Udalaren eta San Jose Patronatuaren arteko lankidetzat hitzarmena sinatu zen.

Obraren proiektua 1994ko irailaren 7an onartu zuen osoko bilkurak 188.784.346 pezetatan. Zaharretxea hartzen duen lur eremua babesturiko baratzatzat dago sailkaturik idazkariaren eta Euskalerriko Arkitektoen Kontseilu Ofizialaren txostenek diotenez. Arazoa 1995ean konpondu zen arau subsidiarioen aldaketaren bidez. Obraren

kontratazioa presa-tramitazioko lehiaketa bidez egin zen, iragarkia NAO eta egunkari batean argitaratu zen eta lizitaziora bost enpresa aurkeztu ziren. Obraren esleipena 1994ko urriaren 21ko osoko bilkuran egin zen 178.971.524 pezetatan. Baldintzen orrian kontratistaren sailkapena eskatzen ez bada ere, esleipendunak aurkeztu egiten du. Gastua urte anitzekoa da. Lan hau egiten ari garela azken ziurtagiria eta obraren likidazioa jasotzea bertzerik ez dira falta. Zaharretxea 1996ko ekainaren 29an inauguratu da.

Nafarroako Gobernuak Gizarte Ongizate, Kirol eta Etxebizitza Departamentuaren dirulaguntza obraren %80 izan da: 48 milioi 1994ko aurrekontuetan, 70 milioi 1995eko aurrekontuetan eta 33 milioi 1996ko aurrekontuetan.

- Baserrietako bideen konponketaren II fasea

52.032.006 pezetako obra-proiektu hau 1995eko martxoaren 27ko osoko bilkuran onartu zen. Baldintzen orrian ez zen kontratistaren sailkapena eskatzen. Kontratazio prozedura presa-tramitazioko lehiaketa izan da eta horren iragarkia NAO eta lurraldeko egunkari batek eman zuten. Lizitaziora hamar enpresa aurkeztu ziren. Obraren esleipena alkatetzaren 1995eko irailaren 11ko agindu bidez egin zen, 40.104.294 pezetatan. Esleipena eskaintza merkeenari eman zitzaion. Obraren behin betiko kitapenaren zenbatekoa, 42.650.751 pezeta, %6,35 igo da esleipen prezioarekin konparatuz. Hala ere, ez da horri buruzko txosten teknikorik egin.

Nafarroako Gobernuak Toki Administrazioari Departamentuak 93-95 biurteko planaren barruan zegoen obra honen %71,7a jotzen duen dirulaguntza emand du.

- Suhiltzaileen aparkalekuko urbanizazioa

Obra hau egiteko proiekturik ez, baizik eta eskuz eginiko zirriborroa eta aurrekontua egin ziren. Aurrekontua eta baldintza-orria alkatetzaren 1995eko uztailaren 6ko agindu bidez onartu ziren, aurreikusitako zenbatekoa 2.378.673 pezeta zelarik.

Kontratazio zuzena egin zen, zazpi enpresari eskaintzak egiteko gonbitea luzatu eta iragarkia herrian paratu ondoren.

Obra aurkeztutako lizitatzailerak bakarrari eman zitzaion 2.350.000 pezetatan. Obraren kitapena 2.023.697 pezeta izan zen.

Espedienteen azterketaren ondorioztat erran dezakegu Udalak, oro har, kontratazioari buruzko foru arautegia errespetatu egin duela. Dena den, ahal duen neurrian presa-prozedura baztertu

beharko luke; zuinketa akten erredakzioa bidegarratasun-ziurtagiri bitartez ez egitea ere gomendatu behar da eta, azkenik, proiektua 20 milioitik gorakoa denean baldintza-orrietan kontratistaren sailkapena eskatzeko komenentzia azpimarratu behar da.

Aurreko lerroaldeon arabera, honakoa gomendatzen dugu:

- *Akurapen finantzieroen kontratu bidez erosten diren ondasunen kostua aztertzea.*

- *Fakturak jasotzean BEZaren araudia beteaztea.*

- *Obren ziurtagiriak sortzapean irizpidearen arabera kontabilizatzea.*

- *Profesionalen zerbitzu-sarrietatik Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren atxikipenak kentzea.*

#### **V.5.5. Zergak.**

Atal honetan dirusarreraren lehen hiru kapituluak biltzen dira.

Lehenengo kapituluak ekitaldian kitatutako zerga zuzenak biltzen ditu: Abereengatik kontrabuzioa, landa-lurrekoa, hirikoa eta lizentzia fiskala. Kontzeptuengatik onarturiko eskubideen zenbatekoa 52.178.172 pezeta da, eskubide guztien %11.

Zeharkako zergen dirusarrerak 20.350.418 pezeta izan dira, eskubide guztien %4. Kontzeptuak zirkulazioaren gaineko zerga eta telefonikaren kanona dira.

“Tasak eta bertzelako zergak” kapituluak bilduriko kontzeptuak honakoak dira: Hirigintza lizentziak, ur hornikuntza, igerilekuak, hiltetgia, oihan aprobetxamenduak, okupazio tasak eta bertze dirusarrerak. Onartutako eskubideen zenbatekoa 90.927.248 pezeta da, dirusarrera guztien %18.

Eginiko azterketan honakoa antzeman dugu:

- Zerga erroldak, zerga ziurtagirien zuzenketak, altak eta bajak ez ditu horretarako ahalmena duen organoak onartu.

- 1995ean aplikatu beharreko zerga tasa behin betiko onarpena 1995eko otsailaren 3an argitaratu zen eta horrek lege arazoak sor litzake.

- Borondatezko epea amaiturik, ez da luza-menduagatik errekarua aplikatu 1995ean, agente beterazleari ematen zaizkion ordainagiritan izan ezik.

- Agentzia beterazlea Geserlocal, S.L. enpresak du birkontratua. Ordaintzeke dauden 1993,



1994 eta 1995eko ordainagiriak 1996ko maiatzean bidali zaizkio.

- Likidazioan agertzen diren zerga-kontzeptuen kobratu gabea ez dugu kontrastatzerik izan ekitaldi amaieran kobratzeke zeuden ordainagiriekin, gordailuzaintzaren eta kontuhartzaitzaren arteko diferentziengatik eta 1995eko abenduaren 31n kobratzeke zeuden ordainagiriaren zerrendarik ez dagoelako.

- Udaleko arduradunek ez dituzte behar bezala kontrolatzen igerilekuetako sarreren, festa egitarauaren iragarkien, hiltegien eta terrazen dirusarrerak.

- Oihan aprobetxamenduak kutxa irizpidearen arabera kontabilizatzen dira, berauen sortzapena esleipenarekin batera eginez gero dirusarrerak 22.109.510 pezetatan gehituko lirake. 1995eko ekitaldian sarturiko 29.963.876 pezeta aurreko urteetan eginiko loten esleipenari dagozkio. Ekitaldian onartu eta kontabilizaturiko eskubideen zenbatekoa 45.628.246 pezeta da.

Aurreko lerroaldean arabera, honakoa gomendatu nahi dugu:

- *Zergen erroldak, ordainagiriaren altak, bajak eta zuzenketak alkatetzaren agindu bidez edo osoko bilkuran onartzea.*

- *Aplikatu beharreko zerga tasak indarrean sartzeko diren urteko urtarrilaren 1a baino lehen argitaratzea NAOn.*

- *Zerga kontzeptu bakoitzaren borondatezko epea amaiturik, luzamenduagatik erekargua aplikatzea.*

- *Kobratzeke dauden ordainagiriak, borondatezko epea amaiturik, agentzia beterazleari ahalik eta lasterren bidaltzea.*

- *Kontabilitatean kobratzeke agertzen diren zenbatekoak gordailuzaintzako ordainagiriekin alderatu eta ekitaldi amaieran kobratzeke dauden ordainagiriaren zerrenda egitea.*

- *Partikularrei zuzenean egiten zaizkien dirusarrerarako txartel gordekindunak erabiltzea.*

- *Oihan aprobetxamenduen kontabilizazioa loteen behin betiko esleipenarekin batera egitea.*

#### **V.5.6. Hartutako ohiko eta kapital transferentziak.**

IV. kapituluak, ohiko transferentziak, Udalak jasotako zergaz besteko dirusarrerak biltzen ditu,

Udalak ordain zuzenik eman gabe jasotzen dituenak, eta ohiko eragiketarako finantzatzeko erabiltzen dira. Ekitaldian onarturiko eskubideak 93.953.600 pezeta dira, dirusarrera guztien %19.

VII. kapituluak, kapital transferentziak, kapital eragiketarako finantzatzeko dirulaguntzak biltzen ditu. Kapitularen dirusarrerak 116.289.660 pezeta-koak dira, onarturiko eskubideen %24.

Dirusarrerak kobratzean egiten da berauen egozpena, hori da bi kapituluotako dirusarreraren kontabilizazio irizpidea. Kobratzeke dauden zenbatekoak ekitaldi amaieran kontabilizatzen dira.

Irizpide hau dela medio, zaharretzeko obra finantzatzeko 3.799.247 pezetako dirulaguntza kontabilizatu da, nahiz eta ekitaldiaren amaieran gastua burutu gabe egon.

Estatuaren zergen partaidetza dirusailean 1994ko laugarren hiru hilabetekotik 1995eko azarora arteko hamalau hilabeteko kontabilizatu dira.

Kapitulu honetan festa-kartelaren iragarkien kobrantzak eta itzultze batzuk kontabilizatu dira.

Aurrekoaren arabera honakoa gomendatu nahi dugu:

- *Dirulaguntzak onartutako eskubidetza kontabilizatzea kontzesioa egiten denean.*

- *Estatuaren zergen partaidetzaren ondoriozko hileroko dirusarrerak kontabilizatzean irizpide bakarra erabiltzea, ekitaldi bakoitzean dagozkion hamabi hilabetekoak egozteko.*

- *Dirusarrerak bere izaera ekonomikoaren arabera egozteko dagokien kapitulan.*

- *Diruz lagundutako obren kontabilizazioa dirusarreraren kapital transferentziekin koardatzea gastu eta dirusarreraren arteko korrelazio irizpidea errespetatuz eta likidazio txostenean zehaztuz.*

#### **V.5.7. Finantza-pasiboak.**

Dirusarreraren 9. kapituluak Udalak 1995eko urtarrilean kontzertaturiko 15 milioiko mailegua biltzen du eta gastuetan pasibo finantzieroen amortizazioak kontabilizatu dira.

Lehenengo eraskinean 1995eko maileguak eta berauen aldaketak biltzen dira.

#### **V.5.8. Diruzaintza.**

Diruzaintzaren kontua honakoa da 1995eko abenduaren 31n.



Kontzeptua	Hasierako izakina	Dirusarrera garbiak	Guztira	Ordainketa garbiak	Azken izakinak
Ohiko aurrekont.	(14.924.539)	338.179.108	323.254.569	331.823.730	(8.569.161)
Ohikoa, guztira	(14.924.539)	338.179.108	323.254.569	331.823.730	(8.569.161)
ABIL diruz	9.265.943	21.992.949	31.258.892	20.764.634	10.494.258
ABIL baloreak	30.568.495	8.776.226	39.344.721	17.572.099	21.772.622
Guztira ABIL	39.834.438	30.769.175	70.603.613	38.336.733	32.266.880
Guztira	24.909.899	368.948.283	393.858.182	370.160.463	23.697.719

Udalak ordainketa gehienak banku transferentziaren bidez egiten ditu eta, oso gutxitan, taloiak erabiltzen ditu. Ordainagiri hauek sinadura duten hiruretako bakar batek sinatzen ditu.

Diruzaintzaren kudeaketarako Udalak 10 bankuetan dituen 14 kontu korrante erabiltzen ditu. Barreiadura honek kontrola eragozteaz gain, erabilgarriaren aldizkako azterketak oztopatzen ditu eta gutxieneko saldoak mantentzera behartzen du.

Kutxa kontaketa egiterakoan gordailuzaintzaren arduradunak burututako fidantza duen kontu korrentea ez da kontuan hartzen. 1995eko abenduaren 31n horren saldoa 41.329 pezeta zen.

Udalak ez du Korporazio Kutxaren libururik eta, horregatik, kobrantza batzuk Udaletxean bertan egin eta gero finantz entitateetan sartzen dira.

Aurreko lerroaldeetan aipatutako gorabeherak ikusita, honakoa gomendatu nahi dugu:

- *Fondoan erabilera modu amankomunean egin behar da.*

- *Kontu korrante eta finantz entitateen kopurua ahalik eta gehien murriztea saldo sinbolikoa izanik eraginkorrek ez direnak deuseztatuz.*

- *Kutxa kontaketa udalaren izenean dauden kontu korrante guztiak sartzea.*

- *Udal bulegoetan, ahal den neurrian, kobrantzarik ez egitea. Kobrantzarik eginez gero, mugimenduak Korporazio Liburuan zehaztu fondoan aldizkako kontaketa eginez.*

#### V.5.9. Zordun-hartzekodunak.

Atal honetan aurreko urteetan sortu eta kobratzeke eta ordaintzeke dauden zenbatekoak aztertzen dira, erresultatzat kontabilizaturik daudenak.

Itxitako ekitaldietan ordaintzeke dagoen zenbatekoa 1.274.770 pezeta da eta 1994tik 1991ra arteko faktura txikiei dagokie. Ekitaldi amaieran 626.892 pezetako zenbatekoa deuseztatu egin da faktura batzuk bikoiztuta zeudelako, bertze batzuk

ordainduta eta bertze batzuei buruzko dokumentaziorik ez zegoelako.

1995eko ekitaldia itxita, erresultetan kobratzeke dagoena 35.155.803 pezeta da beronen xehekapena honako hau delarik:

Urtea	Zenbatekoa
1994	7.795.309
1993	14.355.923
1992	3.293.933
1991 eta aurrekoak	9.710.638
Guztira	35.155.803

Likidazioan islaturiko zenbatekoak, zerga arloan kobratzeke daudenak, ez datoz bat agente beterazleak emanikoekin, bien arteko diferentzia handia delarik. Ezin izan da berdinkatzerik egin eta berauen zenbateko argiak ondoren aurkezten ditugu, urtez urte.

Urtea	Zenbatekoa		
	Kontabilitatea	Ag. beterazlea	Aldea
1994	6.987.657	5.793.680	1.193.977
1993	6.477.323	4.524.685	1.952.638
1992	3.142.827	3.202.161	(59.334)
1991 eta aurrekoak	9.691.438	9.456.026	235.412
Guztira	26.299.245	22.976.552	3.322.693

Kobratzeke dauden zenbatekoen aintzintasuna kontuan hartuz, ez dirudi dirutza hori kobratuko denik.

1993an 29.988.562 pezetako BEZaren kitapen osagarriak egin ziren; Nafarroako Gobernuak, ordea, 22.127.962 pezeta jaso zituen. 7.860.600 pezetako aldea Gobernuak onartu ez zituen kitapenei dagokie. Udalak horiek errekurritu egin ditu. Txosten hau egiten ari garela adierazi digutenaren arabera, onartu egin dute errekurtsua.

Ekitaldi amaieran kobratzeke zegoen 3.840.179 pezetako dirutza deuseztatu da. Bi dirusail nagusiak hauexek dira:

Urtea	Kontzeptua	Zenbatekoa
1994	Zalaingo saneamendurako dirulaguntza	2.893.014
1994	Hiri katastroaren akatsa	919.798

Aurreko lerroaldeon arabera honakoa gomen-datu nahi dugu:

- *Likidazioaren arabera kobratzeke daudenen zenbatekoak eta agentzia beterazleak ematen dituenak alderatzea deuseztatu beharreko ordainagiriak deuseztatuz.*

- *Kobratzeke daudenen aldizkako azterketa zehatzak egitea bi urtetik gorako aintzintasuna dutenak bereziki berraztertuz.*

#### **V.5. 10. Aurrekontuaren balio independente eta laguntzaileen liburua.**

Kapitulu honi egozten zaizkion eragiketek atxikipen, fidantza, ordainagiri, kobrantza eta bertzelako gordailuak biltzen dituzte.

ABILen atal ezberdinak aztertu dira. Antzemandako gorabeheraren bat izan dutenak aipatuko ditugu ondoren:

Saneamenduaren kanona balio ataletan eta diruz ere kontabilizatzen da. Bien azken izakina ez dator bat ez kobratzeke dauden ordainagiriekin ezta NILSari pagatu beharreko dirutzarekin ere, aurreko ekitaldietatik eratorritako saldoak direla eta.

Balantzen erregularizazioaren atalak 1.573.750 pezetako saldoa du, kontabilitatearen eta aurreko urteetako diruzaintzaren kutxa kontaketaren arteko aldeari dagokiona.

*Udalak aurrekontuz kanpoko eragiketa kontu guztiak birrazter ditzan gomendatzen dugu, saldoen baliozkotasuna egiaztatuz eta aintzintasunagatik edo gaizki kontabilizatuta egoteagatik eskatuko ez diren zenbatekoak ohiko aurrekontuan sartuz.*

#### **V.5.11. Hirigintza.**

Berako Udalak 1986an onarturiko arau subsidiarioak ditu. 1990 eta 1995ean arauoi aldaketak egin zaizkie.

Udalak ez du lurzoru-ondarea eratu.

*Udalaren lurzoru-ondarea eratzeko beharra gogoratzen dugu. Ondarearen barnean behar dute hirigintza-planteamenduak hirilurtzat edo urbanizagarri programatuzat sailkatzen dituen ondare-ondasunak eta, beti ere, lagapenen bitartez eskuratuak, lurzoru zein dirutan izan, hirigintza-desjabetzearen bitartez eta atzera-eskuratze-ko eskubidea erabiltzearen ondorioz lortutakoak (Hirigintza eta Lurralde Antolaketari buruzko Foru Legearen 265-271 artikulua).*

Udalaren ondarearen inbentarioa 1991ko abenduaren 31n egin zen eta ordutik hona ez da gaurkotu udal ondarean izandako aldaketekin.

*Ondarearen inbentarioa Udal ondarean izandako aldaketekin gaurkotu eta aldaketa horiek osoko bilkurak onartzea gomendatzen dugu.*

Iruñean, 1996ko urriaren 9an

Lehendakaria: Francisco Javier Tuñón San Martín

**ERASKINAK.****1. ERASKINA. FINANTZA-PASIBOEN ZERRENDA 1995eko ABENDUAREN 31n**

Entitatea	Zertarako	Zenbatekoa	Data	Korrituak	Muga Urtea	Zor Bizia 94/12/31	Igoerak	Korrituak	Amortizazioak	Urtekoa	Zor Bizia 95/12/31
Naf. Gob.	Ur hornikuntza	9.321.202	1980		1995	621.415	0	0	621.415	621.415	0
Naf. Gob.	Ur hornikuntza	200.000	1983		1998	47.337	0	0	13.333	13.333	34.004
Naf. Gob.	Basoberritzea	0			1995	2.323.000		0	2.323.000	2.323.000	0
Naf. Gob.	Larre berriak	9.796.942	06/12/89		2010	7.855.231		0	472.164	472.164	7.383.067
BCL (maileg.)	Ur eta bideak	66.224.186	05/17/90	10	2001	49.994.030		4.787.671	5.764.817	10.552.488	44.229.213
NAK (kred.)	Bestelakoak	171.306.469	08/11/90	Variable (1)	2000	102.783.881		8.796.823	17.130.647	25.927.470	85.653.234
NAK (kred.)	Bestelako inberts.	110.000.000	06/25/92	Variable (1)	2003	99.000.000		9.473.839	11.000.000	20.473.839	88.000.000
NAK (kred.)		15.000.000	01/18/95	10,25	2005		15.000.000	719.406	367.139	1.086.545	14.632.861
<b>Guztira</b>						<b>262.624.894</b>	<b>15.000.000</b>	<b>23.777.73</b>	<b>37.692.515</b>	<b>61.470.254</b>	<b>239.932.379</b>

(1) Korritu tasa, MIBOR + 1

## 2. ERASKINA. ISIDORO FAGOAGA UDAL MUSIKA ESKOLAREN GASTU ETA DIRUSARREREN LIKIDAZIOA.

## Gastuen aurrekontua. 1995eko ekitaldia (pezetatan)

Kontzeptua	Hasierako Aurreikusp.	Aldaketa	Behin bet. Aurreikus.	Kitatutako betebeharrak	Likidaturiko ordainketak	Ordaintzeke	Betetze. %	Onetsiaren %
1. Langileriaren soldatak	18.480.190	0	18.480.190	18.749.094	18.749.094	0	101	89
2. Ondasun eta zerb. erosketak	1.613.837	0	1.613.837	1.795.543	1.719.233	76.310	111	8
3. Korrituak	20.000	0	20.000	9.599	9.599	0	48	0
4. Ohiko transferentziak	10.000	0	10.000	10.000	0	10.000	100	0
Ohiko gastuak guztira	20.124.027	0	20.124.027	20.564.236	20.477.926	86.310	102	97
6. Inbertsio errealak	650.000	0	650.000	578.029	505.979	72.050	89	3
Kapital gastuak, guztira	650.000	0	650.000	578.029	505.979	72.050	89	3
Gastuak, guztira	20.774.027	0	20.774.027	21.142.265	20.983.905	158.360	102	100

## Dirusarrerren aurrekontua. 1995eko ekitaldia (pezetatan)

Kontzeptua	Hasierako Aurreikusp.	Aldaketa	Behin bet. aurreikus.	Kitatutako eskubideak	Dirubilketa likidoa	Kobratzeke	Betetze. %	Onartu-tako oso. %
3. Tasak eta bertze dirusarr.	7.708.934	0	7.708.934	7.570.816	7.570.816	0	98	37
4. Ohiko transferentziak	12.896.374	0	12.896.374	12.896.374	12.896.374	0	100	63
Ohiko dirusarr., guztira	20.605.308	0	20.605.308	20.467.190	20.467.190	0	99	100
Dirusarrerak, guztira	20.605.308	0	20.605.308	20.467.190	20.467.190	0	99	100





NAFARROAKO PARLAMENTUKO  
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA  
ORRIA

*Izen-deiturak* .....

*Helbidea* .....

*Telefonoa* ..... *Hiria* .....

*P. K.* ..... *Probintzia* .....

Ordaintzeko:

Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko sartu-ateratzeko kontura igorri edo bertan sartu



<b>HARPIDETZAREN PREZIOA</b> <b>ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA</b> Urte bat ..... 5.700 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa ..... 125 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa ..... 160 » .	<b>IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA</b> <b>NAFARROAKO PARLAMENTUA</b> «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta, 12, 3 31002 IRUÑEA
---	--